

TRANTSIZIOAN DAUDEN ESPAZIOAK AINTZAT HARTZEKO AUKEREN AZTERKETA

EAEko LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN
(LAG) BERRIKUSPENAREN OINARRIZKO DOKUMENTUAN

2016ko UZTAILAREN 21a



INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

ttipiSTUDIO

Ane Abarrategi Zaitegi – Ttipi Studio

Irati Burgués Asteasu – B-studio arkitektura





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

ttipiSTUDIO



B-Studio
IRATI BURGUES



AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. IKUSPEGI OROKORRA	7
testuingurua eta justifikazioa	7
aldaketa sozioekonomikoak eta espazioaren ekoizpena	7
lurraldearen erabilera eta ekoizpenarekin lotutako errealitate espazial berriak	11
3. JARDUNBIDE EGOKIAK	15
bertara ekartzeko esperientziak eta ereduak	15
bertarako ekartzeko lehen oharak	34
4. EGUNGO ESPARRUAREN GABEZIAK ETA AUKERAK	37
4/1990 Legea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa	37
Euskadiko lurralde-antolamenduko gidalerroen berrikuspena	38
EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea	40
5. AURRERAPENEAN LAGak GEHITZEKO PROPOSAMENA	45
trantsizioan dauden espazioak aintzat hartzeko lurralde-estrategia	45
aurrerapenean gehitzeko idazki-proposamena	47



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

ttipiSTUDIO



B-Studio
IRATI BURGUES

1. SARRERA

Dokumentu hau Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzak eskatuta idatzi da. Ane Abarrategi Zaitetik eta Irati Burgués Asteasuk egin dute, EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren Oinarrizko Dokumentuaren idazketaren esparruan (dokumentua 2015eko azarokoa da).

Txostenaren xedea honakoa da: EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren Oinarrizko Dokumentuaren baitan hiri-errealitate berriak barne hartzeko aukera aztertzea –hala nola zaharkitutako edo trantsizioko espazioen bitarteko erabileren edo erabilera iragankorren bidezko berraktibazioa, bai eta horien ekoizpen eta kudeaketa kolaboratiboa ere– .

Dokumentuak ibilbide bat osatzen du, egungo testuinguru sozioekonomikoa eta horrek lurralde-ekoizpenarekin duen lotura aztertzei hasi eta LAGen aurrerapen-dokumentuari eransteko idazketa-proposamen bat egiteraino. Horretarako, jarduketa eta eredu mota horiek gauzatzen eta nabarmentzen dituzten jardunbide eta esperientzia egokien katalogo bat prestatu da, eta horietatik gure lurraldean aplikatzeko zenbait ekintza eratorri dira. Gainera, dokumentuan egungo lege-esparruaren azterketa bat egiten da, oinarritzat hartuta EAEko lurralde-antolamenduari buruzko 4/1990 Legea, 2015eko EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren Oinarrizko Dokumentua eta EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea. Hala, esparru horrek esperientzia eta jardunbide disruptiboen azterketatik eratorritako ekintzak ezarri ahal izateko dituen gabeziak eta aukerak aztertzen dira.

Azkenik, eta aipatutako azterketaren emaitza moduan, dokumentuan idazketa bat proposatzen da, hura 2015eko azaroko LAGen Berrikuspenaren Oinarrizko Dokumentuan eransteko. Haren azken xedea etorkizuneko lurralde-estrategiaren barruan trantsizioan dauden espazioak, erabilera iragankorrak eta horiek ekoizteko eta kudeatzeko lankidetzak-eredua aintzat hartzea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

ttipiSTUDIO



B-Studio
IRATI BURGUES

2. IKUSPEGI OROKORRA

testuingurua eta justifikazioa

Ikusten hasi gara ohiko lurralde-plangintzako eta -egikaritzeko eredua, ekonomia-hazkundeko testuinguruetan eta industria-aroko edo aro modernoko gizarteetan funtzionatzeko diseinatutakoa desegokia dela geldialdi, krisialdi eta gizarte-ereduaren aldaketa-garaietan. Hainbat eraldaketa gertatzen ari dira, eta horrek planifikatutakoa modu linealean eta planen arabera ezartzeko zailtasunak eragiten ditu: plangintzaren eta egikaritzaren arteko denbora ezin da aurretik jakin, arrazoi teknikoak edo ingurumen-, ekonomia- nahiz gizarte-arrazoiak direla eta. Faktore eta aldaketa horiek guztiak, gainera, aurreko garaietan baino maizago eta abiadura handiagoz gertatzen dira, eta eragin erabakigarria dute espazioaren ekoizpenean. Hala, denborak, erabilerak eta kudeaketa-moduak esku-hartzeari dagokion errealitate zehatzera egokitzeko beharra agerian uzte dute.

Hiri-espazio huts edo zaharkituetak aldian baterako erabilera iragankorrak azken hamarkadetan ekonomiak eta gizarteak izan dituzten egiturazko aldaketen ondorioztat har daitezke. Aldaketa horiek aukerarako espazioak sortu dituzte hirietan eta kokaleku urbano txikiagoetan, eta bertan, hainbat gizabanakok, taldek eta/edo enpresa-jarduera sortzaile eta sozialek esku-hartze urbanoko eredu herritarrak eta bat-batekoak gauzatu ahal izan dituzte, ohiko hirigintza-plangintzatik, -egikaritzetik eta -kudeaketatik kanpo.

Testuinguru horretan premiazkoa dirudi egoera, erabilera eta praxi mota horiek lurraldearen definizioaren, plangintzaren eta kudeaketaren barruan txertatzeko edo onartzeko aukera begiztatzea. Egungo lege-esparruak eskaintzen dituen aukerak aztertuz eta arlo horretan abiarazitako hainbat esperientzia eta ekimen behatuz txosten honen helburua errealitate horiek testuinguruan kokatzea da, LAGetan trantsizioan dauden espazioak¹ eta erabilera iragankorrak², bai eta lurraldearen ekoizpenerako eta kudeaketarako lankidetzaren ereduak ere, barne hartzea sustatzeko³. Modu horretan, lurralde-aprobetxamendua sustatzea eta lurralde adimentsua sortzea bilatzen da, bere birsorkuntza-beharrei bertan bizi diren eragileek ekimenaren bitartez erantzuteko gai izango den lurralde bat.

aldaketa sozioekonomikoak eta espazioaren ekoizpena

Azken hamarkadetan gertatutako eraldaketek espazioaren eta lurraldearen ekoizpenean eragin dute. Asko eta askotakoak dira, beroriek lurralde- eta hiri-ereduan izan dituzten ondorioak bezala. Aldaketa horiek hiri-hutsuneak eta/edo lurralde zaharkituak utzi dituzte bidean, eta aldaketa sakonak lurraldea bere osotasunean egituratzeko moduan.

Laburpen gisa, oro har, esan genezake aurreko garaietan ez bezala lurraldea guzti metropolitanoetan egituratzeari uzten ari zaiola, hau da, ingurune gutxi gorabehera konpaktu eta aglomeratu batez inguratutako

¹Ikusi «Lurraldearen espazio-, erabilera- eta ekoizpen-errealitate berriak» atala.

²Ikusi «Lurraldearen espazio-, erabilera- eta ekoizpen-errealitate berriak» atala.

³Ikusi «Lurraldearen espazio-, erabilera- eta ekoizpen-errealitate berriak» atala.



hiritan edo hirigune nagusitan antolatzeari. Horren ordez, gero eta gehiago ikusten duguna «hiri- eta eskualde-lurralde etena da, eremu konpaktuak eta beste eremu lauso batzuk nahasten dituen, askotariko erdigunez eta bazterreko eremuz osatua, espazio urbanizatuz eta beste espazio babestu edo zain utzitako batzuek», globalizatutako bikaintasunezko kokalekuak eta profil txikiko hiri-zatiak dituztenez. Errealitate berri horiek hiriko-eskualdeko lurraldearen dimentsio-aniztasun moduko bat sortzen ari dira: erdiguneak, aldiriak, geometria aldagarriko sare osagabea hiri ertain eta txikietan, hirigintza lausoa, erabilerarik gabeko azpiegiturak, bazterreko kokaleku eta habitatak, etab. Hutsune, zaharkitze eta dimentsio berri horien kausak ulertzea ezinbesteko eginkizuna da testuinguru eta errealitate horretara egokituko diren jarduketak proposatzeko orduan.

Industria-iraultzaren garaian, etengabe agertzen ziren hiriaren inguruko ideia berriak, espezializazioaren eta zonakatzaren logikak markatuak; hiri «fordokeynesio-corbusiar»⁴ izenez ere ezagutu zen. Eredu hori plangintzaren, funtzio bakarreko zonakatzaren eta hiri-egitura hierarkikoaren bidez eraginkor egin zen arrazionaltasun sinplifikatzailean oinarritu zen, eta hainbat hamarkadatan industriaren funtzionamenduan nagusitutako logika berberean oinarritu zen: «Ekoizpena eta merkataritza-guneetako kontsumora, industrialdetara eta zirkulazio lasterrera egokitutako hirigintza eratzea, eta era berean, Ongizate Estatua talde-ekipamenduekin, zerbitzu publikoekin eta etxebizitza sozialarekin hezur-mamitzea».⁵ Logika horren pean bizi izan du lurralde urbanizatuak egun arte ezagutu den eskala handiko hedapen, zabalkuntza eta berregituraketarik handiena, eta horrek konfiguratu du hiria gaur egun ezagutzen dugun moduan.

70eko hamarkadako petrolioaren krisialditik aurrera, gainbeheran hasi zen eredu fordista, eta orduan abiarazitako eraldaketek mundu-mailako konfigurazio ekonomiko, sozial eta politiko berria ekarri dute. 70eko hamarkadaren amaieratik, herrialde garatuek bizitako dezelerazioak Ongizate Estatuaren krisialdia eragin zuen. Testuinguru horretan, ekoizpen-maila biziagoa, zabalagoa eta merkeagoa bilatuz, ekoizpen-prozesuak nazioartekotu egin dira, eta horrek mendebaldeko industria-jardueraren zati handi bat desagerrarazi du; aldi berean, baina, ekoizpen-eredu industrial globalizatu bat ezartzera behartu du, eta, haren ondorioz, ekoizpen-prozesu bat mundu-mailako hainbat eskualdetan garatu eta zatitu daiteke. Ekoizpen-ereduaren aldaketa horrek, gainera, herrialde garatuenetako ekonomietan baliabideak nekazaritza eta industriatik hirugarren sektoreko jarduerara pasatzea eragin du, bai eta eskaintza eta eskarian aldaketa sakonak eta teknologia- eta komunikazio-arloko aurrerapenak ere. Hirugarren sektoreak indar saihestezina hartu badu ere, esan daiteke prozesu horrek duala izaten jarraitzen duela eta nolabaiteko integrazioa dagoela bi jardueren artean; hala, ekoizpen-ereduaren joerari «industriaren hirugarren sektorerako joera» edo «hirugarren sektorearen industrializazioa» deitu dakioke. Gauzak horrela, desindustrializazioa eta hirugarren sektorerako joera prozesu paraleloak dira, eta bestelako ekoizpen-egitura bat sortu dute: ekoizpen malgua, bertikalki desintegratua, hirugarren sektoreko enpresa berezitzen azpikontratazioan oinarritua.

Ekoizpen-eredu berri horrek aldaketak eragin ditu, ez enpleguan eta haren lan-egituran soilik; aldaketa horiek, gainera, ekonomia-jarduera kokatzeko eta, hortaz, hiriko lurraldea eta espazioa konfiguratzeko eta erabiltzeko jarraibide berriak eragin dituzte. Hiriko eremu estentsiboak edo erdiguneak hartzen zituzten industria zaharrak desagertuz joan dira, eta toki txikiagoa hartzen duten edo aldirietara edo industrialdeetara lekualdatu diren jarduera ekonomikoko beste industria eta sektore batzuei bide eman diete. XIX. mendeko industria-hiriak

⁴. Ascher, François. Los nuevos principios del urbanismo. Alianza Editorial, 2004.

⁵. Ascher, François. Los nuevos principios del urbanismo. Alianza Editorial, 2004.

metropoli industrialari bide eman zion. Bertan, industria aldiriekin lotzen hasi zen, hirigunea hirugarren sektoreko jardueretan eta zerbitzuetan berezitu zen heinean. Horrela, benetako hiriak eskualderantz zabaltu ditu bere mugak. Hiri postindustrialez hitz egiten hasten da; kasu askotan egiazki metropoli-eskualde industrialen zati diren hiriez⁶.

Dinamika horiek, beste fenomeno batzuen artean, lurralde eta hiri abandonatu edo zaharkituaren agerpenean islatzen dira. Izan ere, ekonomia-arloan dago lurraldearen eta hiriaren zatiketa sozioespazialaren eta zaharkitutako edo erabilerarik gabeko espazio berri asko agertzearen eragile nagusietako bat: «(...) Gaur egun, literaturan gero eta adostasun handiagoa dago hirietan gertatu den espazio-banaketa jatorriaren inguruan. Horren arabera, 70eko hamarkadaren hasieratik modu nabariagoan gertatzen ari dira aldaketa esanguratsu horiek. Aldaketa horien ageriko aldea handitu egin da. Berdin gertatu da, nazio barruzko zein nazioarteko testuinguruan, bestelako aldaketen kasuan, aurrekoekin batera modu paraleloan edo beharbada haien akuilu modura; hor dira globalizazio-prozesua, ekoizpen-moduen aldaketa, Ongizate Estatuaren narriadura, botere-harremanetako ezberdintasunak, teknologien garapena... Guztiek daukate eragina hiri-patroietan, hirien barruan, bai eta haien arteko harremanean ere. »⁷.

Marcuse, Kempen eta beste egile batzuek espazio horien artean eredu sozioekonomikoaren aldaketek eragindako hainbat hiri-hutsune mota bereizten dituzte:

- Hiriguneetan kokatutako manufaktura-espazioak: aski ezaguna da manufaktura-enpresa handiak hirietako erdiguneetatik aldirietara mugitu direla; urbanizatu gabeko aldiriak fisikoki eta ekonomikoki onuragarriagoak dira industria handiarentzat, eta gainditu egin dira aldirietako garraioarekin eta komunikazioarekin lotutako oztopoak, horien alde inbertitu baita. Joera hori ETEetara zabaltzea, hiriguneen berezko dinamikekin lotutako industriak barne (inprenta, moda, ehungintza, diseinua, etab.), fenomeno berriagoa da. Teorian, jarduera horiek hobeki funtzionatzen dute erdiguneetan edo hirietatik hurbil kokatuta daudenean, baina horiek ere lekualdatu dira zerbitzu-sektoreko jarduerak areagotu diren eta higiezinaren prezioek gora egin duten neurrian.
- Industria-orubeak: lehenago esan bezala, ez da berria industria aldiri ekonomikoki errentagarriago eta fisikoki egokiagoetara eramatea; hala ere, industria-orubeen eta gorago aipatutako manufaktura-espazio zentralen arteko aldea da kasu honetan ez dela lekualdatze bat, abandonatze hutsa baizik. Azpiegitura eta eraikin masiboak bestelako erabileretara egokitzeko zailtasunak, alde batetik, eta lurzoruen kutsaduraren arazoak, bestetik, eragiten dute maiz espazio horiek bertan behera uztea edo hutsik egotea. Espazio huts horien eskala nabarmen bizkortu da globalizazio-aldian, baina berriki garatutako espazioetan eta jardueretan ere eragina izaten hasi da; izan ere, nahiz eta horietan zaharkitze fisikoko edo espazialeko arazorik ez egon, badira nazioarteko inbertsioei eta berrantolamenduei dagozkien arazoak, eta horiek bertan behera uztea eragiten dute.

Prozesu horien erritmoa nabarmen bizkortu da gaur egun. Nahiz eta kasu eta esperientzia batzuetan espazio zaharkitu horiek erreklamatu eta geroago beste erabilera batzuetarako birgaitu diren (hiriko ibaiertzen

⁶. Fullaondo, Arkaitz. Repensando la relación entre la industria y la ciudad (I). www.ecosistemaurbano.com. 2009.

⁷. Marcuse, Peter eta Van Kempen, Ronald. Globalizing cities. A new spacial order? London and Cambridge: Blackwell Publishers, 2000.

eraldaketa, langile-auzo gentrifikatuak, industria-birmoldaketa, azpiegiturak), industria-sektorearen murrizketak espazio ugari erabilerarik gabe utzi ditu bai Europan bai AEBetan⁸.

Bestalde, aipatu beharra dago demografia-aldaketek eta migrazio-mugimenduek ere funtzio garrantzitsua dutela hiri-hutsuneak osatzeari eta hirigunean bizitzeko modu berriei dagokienez: gero eta gizarte zaharragoak, migrazio-fluxu handiak, jaiotza-tasa txikiagoak eta malgutasun handiagoko bizikidetzak-unitate txikiagoak, bizitako beste aldaketa sozial askorekin batera; hala, hiriaren morfologiak espazio zaharkituekin egiten du topo, eta horiek ere hiriaren espazio-banaketa islatzen dira.

Alde batetik, hirietako familia-ereduen, bizikidetzak-unitateen eta bizimoduaren aniztasunaren eraginez, bizitegi-premiak aldatu eta etxebizitzari dagozkion lehentasunak dibertsifikatu egiten dira, eta horrek, kasurik txarrean, gentrifikazio edo azpiurbanizazio deitzen diren espazio-banaketa prozesuak bultzatu ditu. Bestetik, aldaketa sozialek baztertze edo arrisku sozial mota berriak ekarri dituzte, eta kasu askotan hiri «abandonatuan» biltzen diren talde kaltebera berriek sufritzen dituzte.

Handituz doan nazioarteko migrazioari eta mugimendu horiek lehen munduko hirietan jasotzeko dagokionez, harrera-hirietako itxurazko «kultura-aniztasunak» edo kosmopolitismoak ezkutatu egiten ditu kasu gehienetan etorkinen bizitoki-kontzentrazioa eta -bereizketa agertzen duten prozesu espazialak; ghetizazioak bilakatzen dira, nahi gabekoak eta diskriminatzaileak badira. Ongizate Estatua ahuldu izanak indartu eta elikatu egiten du joera hori: ekonomia- eta zerga-ereduaren krisialdiak murrizketa-segida bat ekarri du azken urteotan gastu publikoari eta sozialari dagokionez. Horrek eragin du, aurretik jasotako ekonomia-ereduaren aldaketekin batera, bazterketa areagotu izana, baina baita gizarte-desorekak handitu izana ere, eta, hala, gizartea gero eta desberdinagoa eta zatituagoa da. Etxebizitza merkeak biltzen dituzten eremuetako eta zonalde narriatuenetako etxe txiroetan ikus dezakegu arrail horren islapen espaziala; hortaz, banaketa espazialeko fenomeno bat gertatzen da.

Laburbilduz, industria-krisialdiaren ondoren hiri-birsorkuntza eta -eraldaketa bizi izan duten hiri askotan ezarritako hiri-politika berriak ere –ekonomia-hazkunde globala bultzatzean, hiri-marketinean eta hirigintzako makroproiektuak martxan jartzean oinarritua– espazio-banaketa bat ezkutatzen du bere itxuraren atzean. «Enpresa-hirigintza berria» edo «enpresa-hiria» termino berriek, kasu gehienetan, hiri desorekatuagoa ezkututzen dute, espazio irabazlez eta galtzailez osatua: erdiguneek, batetik, birsorkuntza eta aktibazio ekonomikoko inbertsio publikoak jasotzen dituzte, turismoa erakartzen dute eta eroste-ahalmen handieneko biztanleria jasotzen; aldirietako auzo narriatuagoek, bestetik, bazterketa-arriskuan dauden herriarrak biltzen dituzte. Bi abiadurako birsorkuntza horren ondorioz, handitu egin da erdigunearen eta aldirien arteko distantzia, zatiketa eta arraila, eta, kasu batzuetan, espazio baztertuenek are abandonu eta zaharkitze handiagoa sufritu dute.

Azkenik, higiezinaren krisialdiaren ondorioekin egiten dugu topo. Krisialdi hori, gainera, aurretik aipatutako hiri-birgaitzeko proiektu estrategikoak geldiaraztea eragiten ari da, eta ondorioz, espazio abandonatuen kopurua areagotzen. Gero eta handiagoak dira epe ertainean eta txikian inbertitzaileak edo merkataritza-interesik ez duten hiri-espazioak. Orubeen eta are merkataritza-lokalen abandonu-egoerak hirian zabalduz doaz, krisialdiak

⁸. Marcuse, Peter eta Van Kempen, Ronald. Globalizing cities. A new spacial order?. London and Cambridge: Blackwell Publishers, 2000.

eraikuntzak geldiarazten eta erdiguneetako eta hiriko gainerako auzoetako negozioak ixtera behartzen dituen neurrian.

Horrez gain, higiezinaren burbuilaren hazkundearekin eraikitzen hasi ziren milaka hirigintza-garapen, behin eraikita, abandonatuta gelditu dira, interes txikia dutelako higiezin eta bizitoki gisa, eta, ondorioz, eraikin hutsaren sindromeak kaltetutako «etxe zonbi» izenekoak utzi dituzten oinordetzan. Fenomeno horren ondorioak erdizka okupatutako urbanizazioek, obra geldituek edo erabilerarik gabeko azpiegitura handiek osatutako paisaietan aurki ditzakegu. Kasu askotan, gure arazoa dagoeneko bizitegi diren espazio urbanizatuen abandonua baino gehiago oraindik biztanlerik ez duten espazio erdi-urbanizatuak dira.⁹

lurraldearen erabilera eta ekoizpenarekin lotutako errealitate espazial berriak

Azken urteetan, Europako hiri askotan, hirigintza- eta lurralde-plangintzarekiko paraleloak edo osagarriak diren praktiken bitartez espazio hutsak eta zaharkituak bereganatzeko eta behin-behinekoz berrerabiltzeko gero eta ekintza gehiago egin dira. Aurretik deskribatutako testuinguruan, ekoizteko eta «bitartean» hori kudeatzeko formulak agertu dira, eta espazio horiek aktibatzea proposatzen dute, ahalik eta esku-hartze gutxien eginez, bereganatze komunitarioa, bizitza sozial eta ekonomikoa berraktibatzea eta abar eragiteko. Kirol-erabileretatik komunitate-baratzeetara, espazio horiek irudimena eskatzen dute jokoan dauden interes guztien arteko bitartekotza egin ahal izateko, logika irekiago eta horizontalagoarekin.

Espazio-errealitate, erabilera mota eta ekoizpen- eta kudeaketa-eredu berri horiek Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) sartzeko aukera aztertu baino lehen, kontzeptu horiek argitu eta definitu beharra dago. Horretarako, jarraian, txostenean erabiliko ditugun tipologia eta kontzeptu horien hiru definizio aurkeztuko dira, azalpenekin eta ñabardurekin batera.

TRANSIZIOAN DAUDEN ESPAZIOAK

«Trantsizioan dauden espazioak» hirietan eta lurraldean gertatzen diren ezin konta ahala dinamikaren emaitza dira; industria-ekoizpenerako eta/edo azpiegiturarako erabiltzen diren eraikin eta lurzoruetan hutsuneak eta zaharkitzapenak eragiten dituzten eraldaketa ekonomikoetatik hasita, hiriaren erdigunean hutsuneak eragiten dituzten herritarren eta/edo bestelako eragileen lehentasun-aldaketetara. Hutsuneei batera aurki ditzakegu, halaber, denbora-etengaldietan harrapatutako hamaika hiri-bilbe, bukatu gabeko etxebizitza hutsak, gauzatu gabeko espazio urbanizatuak, garatzeko zain egonda gutxiegi erabiltzen diren eremu handiak etab.

Trantsizioan, iraganeko erabileraren eta etorkizunekoaren arteko erdibidean, dauden espazio horiek egundoko eraginkortasunik eza adierazten dute lurralde-kontsumoari dagokionez.

⁹. Fernández, Manu. Crisis y ciudades fantasma. ¿Demoler o reutilizar?. Revista La Ciudad Viva, 4. zkia. 2009ko urtarila.



trantsizio

Latineko «transitio, -ōnis» izenetik.

1. iz. Egoera batetik bestera pixkanaka igarotzea.
2. iz. Aldaketa batean, lehen egoeraren eta egoera berriaren arteko tartea.
3. FIS. Partikula, nukleo, atomo edo molekula energi maila batetik beste batera igarotzea, energi kuantu bat eskuarki erradiazio-eran hartuz edo igorritz

* Harluxet Hiztegi entziklopedikoko definizioa

Honako hauek jotzen ditugu «trantsizioan dauden espaziotzat»: jarduera- eta erabilera-une biren arteko trantsizio-egoeran egoteagatik ustiatu gabe edo abandonatuta geratu diren espazio huts edo gutxiegi erabiliak.

Bai erabilera zaharkitua duten espazioak bai erabilera berriak izateko zain egonik itxarote-egoeran dauden espazioak dira.

Trantsizioan dauden espazioak, hortaz, une jakin batean inolako jarduera zehatzik ez daukaten espazioak dira.

Esan dezakegu plangintzatik kanpo eta haren aurka hazitako errealitateak direla. Hau da, plangintzaren gidalerroen eta nahien aurka sortzen dira eta/edo horrela jarraitzen dute, hainbat egoera eta/edo arrazoi direla- eta: desjabetzeak, identifikatu gabeko orubeak, bukatu gabeko eraikuntzak, bizilagunik gabeko eraikinak, bat ez datozen edo antolamendutik kanpo dauden erabilerak eta eraikuntzak, egikaritu gabeko plangintza, edo, besterik gabe, abandonua.

Espazio horiek modu aldakorrean bizi dira hirian, eta ezaugarri aldakorrak izan ditzakete: lurzoru-hedadura handiak nahiz txikiak, orubeak, eraikinak, etab.

ERABILERA IRAGANKORRAK

Aldi baterako erabilerak eta/edo erabilera iragankorrak historikoki existitu dira hainbat denbora-eskala eta - esparrutan: eguneroko ordutegi baten barruan bakarrik funtzionatu izan duten kaleko azoka txikietatik hasi, eta toki berean hainbat hamarkada ematen dituzten eskala handiko eta biztanle askoko slum¹⁰ deiturikoetara. Nahiz eta sarritan azken baliabide edo taktikatzat jo izan diren eta askotan krisialdiari, etorkizuneko ikuspegi faltari edo kaosari lotzen zaizkion, erabilera iragankorrak osagarri berritzaileak, arrakastatsuak eta inklusiboak izan daitezke lurraldearen ekoizpenean, eta gero eta maizago lanabes eta kategoria baliogarri gisa onartzen dira.

¹⁰. Txabolaz osatutako hiri-kokaleku informala.



iragankor

«Iragan» aditzetik.

1. izond. Iragaten dena, iraunkorra ez dena.
2. izond. *Hizkl.* Subjektutik abiatu eta objektu zuzenera doan ekintza adierazten duen aditza
3. izond. MAT. A multzoan definituriko R erlazioaz esaten da, baldin xRy eta yRz denean, xRz betetzen bada

* *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoko definizioa*

«Erabilera iragankor» terminoaren definizioa honakoa da: erabilerarik gabeko espazioak edo epe motzean konponbide bideragarri edo egingarriak ez dutenak konpontzeko edo aktibatze modu gisa aurkezten diren behin-behineko eta aldi baterako erabilerak.

Denbora-ikuspegi mugatua izatea dute ezaugarri, hau da, etengabeko erabilera-bokazioa ez izatea. Gainera, haien aurreko erabilerak zaharkituta gelditu direlako edo etorkizunekoak oraindik garatu ez direlako trantsizioan dauden espazioetan gauzatzen dira.

Erabilera iragankorrak trantsizioan dauden espazioak leheneratzeko eta baliatzeko modu bat dira, eta, hortaz, lurzoru erabilgarria baliatzeko bide malgu bat. Beren funtzioa askotarikoa izan daiteke (eremu libreak eta berdeguneak, zuzkidurak, jarduera ekonomikoa etab.), baina, aldi baterakoak eta dinamikoak direnez, erabilera mota hori eraldaketa iraunkorrako bati ekin baino lehen aukerak aztertze, aukera berriak esploratzeko, espazio narriatuak leheneratzeko edo zaharkitutako lurzoruak aktibatze modu bat da.

Lurraldearen premiei eta eskakizunei modu azkar eta arinean erantzuteko duen ahalmena da erabilera mota horren berezitasunetako bat; erabilera bat-batekoagoa da, eta espazioak azkarrago garatzeko edo aktibatze bide paralelo edo osagarri bat eratzen du. Berezko ezaugarria ez izan arren, askotan erabilera mota horiek inbertsio eta eraldaketa handirik eskatzen ez duten esku-hartzeen bidez bilakatzen dira egingarri.

TRANSIZIOAN DAUDEN ESPAZIOEN LANKIDETZAZKO EKOIZPENA ETA KUDEAKETA

70eko hamarkadatik aurrera, hirigintza mugiarazlearen eta *advocacy planning*¹¹ delakoaren ondorioz, garrantzi handiagoa hartu du kudeaketa administratiboaren barruan, espazioaren diseinuan parte hartzeak. Nahiko zabaldua dagoen ideia da hirian bizi diren pertsonak direla beharrak eta ekintza posibleak hautemateko egokienak. Hala ere, bai hirigintzako lege-esparruak bai politika publikoek horizontaltasunaren aldeko korrante horren aldarrikapenetako asko bereganatu badituzte ere, badirudi herritarren parte-hartzea ez dela oraindik jardun eta esperientzia asko dituen errealitate bat.

Gaur egungo testuinguru konplexu, askotariko eta pluralean, beharrezkoa dirudi herritarrek eta gainerako gizarte-eragileek lurraldearen eraikuntzan daukaten funtzioa artikulatzeko eta indartzeko ahalmena izango duten

11. Lankidetzeta eta partaidetzarekin lotutako hirigintza-jardunbidea. Jardunbide horretan, teknikari bat edo gehiago erakunde edo pertsona-talde baten esanetara jartzen da, herri-administrazioaren edo sustatzaileen aurrean hirigintza-gatazka bat konpontzen laguntzeko.



partaidetza- eta lankidetzara-modu integralagoak eta prozesualagoak diseinatzea. Hirigintza Planak lurraldea diseinatzeko eta ekoizteko bide bakar gisa duen nonahikotasunak, etorkizunean, lurraldean dauden interesak eta beharrak artikulatzeko modu malguagoei tokia utzi beharko lieke.

Erabilerarik gabeko espazio eta eraikin publikoak eta pribatuak aukera bat dira herritarrek eta bestelako gizarte-eragileek hiriko eta lurraldeko baliabideak modu kolektiboan kudeatzeko sarbide zuzena izan ditzaten. Ohikoetatik haraindiko kudeaketa-prozesu eta -eredu berriak gehitzea planteatzen da, biztanleriaren eskakizun berriei erantzuna eman ahal izateko; izan ere, antolamendu tradizionalaren esparruan, askotan ezin dakieke hain modu arin eta malguan erantzun.

lankidetz

«Lan» eta «kide» erroetatik.

1. iz. Helburu jakina lortzeko beste bat edo batzuekin batera lana egitea; era horretara buruturiko lana
2. intr. Escribir habitualmente en un periódico o en una revista, sin pertenecer a la plantilla de redactores.
3. intr. contribuir (concurrir con una cantidad).
4. intr. contribuir (ayudar con otros al logro de algún fin).

* *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren definizioa*

«Lurraldearen lankidetzazko ekoizpena eta kudeaketa» honako hau da: elkarsorkuntza eta elkarkudeaketako logiketarik abiatuz, espazioa diseinatu, eraiki eta kudeatzeko formulak, ohikoekiko paraleloak, proposatzen dituzten herritarrak eta/edo gizarte-eragileak buru dituzten esku-hartze eta eraldaketa-prozesuak.

Eredu horren arabera, biztanleriak, hiria kontsumitzeaz gain, hura sortzeko orduan eragile aktiboa izan behar du. Ekoizpen- eta kudeaketa-ekimen eta -eredu horietako askok espazioaren abandonuari eta erabilera txikiegari erantzuna emateko estrategia moduan funtzionatzen dute, eta gutxi-asko aldi baterakoak diren bestelako erabilera kolektiboetarako aukerak sortzea bilatzen dute. Lurraldearen lankidetzazko sorkuntzarako eta kudeaketarako prozesuak ohiko hirigintza-diziplinak ezarritakoen osagarri dira; izan ere, ohiko prozedurak epe motzean erantzun ahal izan ez dituen egoeren erantzun gisa ematen dira, eta trantsizioan dauden espazioak behin-behinekoz edo modu iragankorrean berraktibatzeke ekimenen buru izan daitezke.

Erakundeek (top-down) abiarazitako ekimenak izan, zein gizabanakoek eta talde sozialek (bottom-up) abiarazitakoak izan, kudeatzeko modu parte-hartzaileagoak, autoantolatuak eta hibridoakhauek dira haien funtzionamenduaren ezaugarri. Hala, taldeei eta gizarte-eragileei espazioak erabili, eraldatu eta kudeatzea ahalbidetzen dieten ezohiko esparruen pean jardun ohi dute: hitzarmenak direla, *ad hoc* programak direla, udal-araudiaren aldaketak direla edo emakidak direla, besteak beste.

3. JARDUNBIDE EGOKIAK

bertara ekartzeko esperientziak eta ereduak

Atal honetan, gure aztergaiarekin lotuta baliozkotzat eta jardunbide egokitutako jotzen ditugun estatuko eta nazioarteko ekimen batzuen katalogoa jaso da: trantsizioan dauden espazioen balioztatzea eta aktibatzea, erabilera iragankorren bidez, lurralde-sorkuntzako eta -kudeaketako lankidetzazko ereduak pean.

Aurkeztuko diren jardunbideak hautatzeko, hainbat irizpide eta aldagairi erreparatu zaio, lagin adierazkor bat ematea bilatuz, baina jarduketa eta eredu mota horren aniztasuna eta aberastasuna ere aintzat hartuta. Gainera, hautaketa-irizpideak zehazteko, zereginaren helburua hartu da ardatz gisa: mota horretako jarduketa eta ereduak gure lurraldera ekartzeko edo helarazteko aukera posibleak ikustea.

Honako hauek dira ekimenen hautaketa eta laginketa egiteko finkatutako aukeratze-irizpideak:

1. JARDUKETAREN DIMENTSIOA

Hainbat eskala edo dimentsio motari erantzuten dioten ekimenak; jarduketa txikietatik (orube bat, adibidez), eskala handiko jarduketetara (esaterako, udal- edo metropoli-maila).

2. SUSTATUTAKO ERABILERA

Hainbat erabilera eta jarduera mota sustatzen dituzten ekimenak: espazio publikoa eta/edo berdeguneak, zuzkidurak (kultura, jolas, hezkuntza, komunitate eta abarri dagozkienak), ekonomia-jarduerak etab.

3. ESKU HARTU DUTEN ERAGILEAK

Ekimen jakinak, eredu batetik baino gehiagotatik sustatuak (bottom-up, top-down, eredu mistoak) eta askotariko eragileen partaidetza dutenak (talde jakinek bultzatutako proiektuak, lankidetzak, proiektu irekiak, etab.).

4. TESTUINGURU FISIKOAK

Askotariko testuinguru fisikotan gauzatutako ekimenak: orubeetan, berdeguneetan, eraikinetan, industria-pabilioietan, azpiegituretan etab.

5. LURRALDE-TESTUINGURUA

Mota eta maila askotako lurralde-testuinguruetan gauzatutako ekimenak: hirietan (erdigunean nahiz aldirietan), herrietan, landa-eremuetan, etab.

6. LURZORU MOTAK

Hainbat lurzoru motatan gauzatutako ekimenak, haien sailkapena eta kalifikazioa aintzat hartuta.

7. JABETZA- ETA ERABILERA-ARAU BIDEA



Jabetza publikoko eta/edo pribatuko lurzoruetan eta/edo eraikinetan, erabilera lagatzeko hainbat motatako hitzarmenen edo bestelako bitartekotza-formulen pean, gauzatutako ekimenak.

8. LURRALDE- ETA HIRI-ESTRATEGIA

Trantsizioan dauden espazioei, erabilera iragankorreki eta lurraldea sortzeko eta kudeatzeko lankidetzazko ereduak lurralde- eta/edo hiri-estrategiatik abiatuz heltzeko bideak aztertzen eta proposatzen dituzten ekimenak eta esperientziak.

9. PLANGINTZA

Trantsizioan dauden espazioei, erabilera iragankorreki eta lurraldea sortzeko eta kudeatzeko lankidetzazko ereduak plangintzatik abiatuz heltzeko bideak aztertzen eta proposatzen dituzten ekimenak eta esperientziak.

10. ARAUDIA

Trantsizioan dauden espazioei, erabilera iragankorreki eta lurraldea sortzeko eta kudeatzeko lankidetzazko ereduak askotariko araudi edo erregulazio motetatik abiatuz heltzeko bideak aztertzen eta proposatzen dituzten ekimenak eta esperientziak.

11. KONTRATAZIO PUBLIKOA

Trantsizioan dauden espazioei, erabilera iragankorreki eta lurraldea sortzeko eta kudeatzeko lankidetzazko ereduak lizitazio edo kontratazio publikoetatik abiatuz heltzeko bideak aztertzen eta proposatzen dituzten ekimenak eta esperientziak.

Guztira, 17 kasu hautatu dira. Hona zerrenda:


1. ESTO NO ES UN SOLAR (Zaragoza, Espainia)
2. EL CAMPO DE LA CEBADA (Madril, Espainia)
3. MARINALAB (San Sebastián de los Reyes, Espainia)
4. PLA BUIITS (Bartzelona, Espainia)
5. HUERTOS DE BENIMACLET (Valentzia, Espainia)
6. INCREDIBLE EDIBLE (Todmorden, Erresuma Batua)
7. SIDE EFECT (Bat Yam, Israel)
8. LES RANDONNÉES PERIURBAINES (Bordele, Frantzia)
9. ZWISCHENNUTZUNG-ERA KO TOKIKO AGENTZIA (Berlin, Alemania)
10. MONTENOSO (Galizia, Espainia)
11. HIRIKO ONDASUN KOMUNAK ZAINTEZKO ETA ERABERRITZEKO HERRITARREN ETA ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZARI BURUZKO ERREGELAMENDUA (Bolonia, Italia)
12. ARTSCAPE WYCHWOOD BARNS (Toronto, Kanada)
13. SVARTLAMOEN NURSERY (Trondheim, Norvegia)
14. ASTRA GERNIKA (Gernika, Espainia)
15. DARWIN ÉCOSYSTÈME (Bordele, Frantzia)



16. CAN BALTLÓ (Bartzelona, Espainia)

17. KAAPELITEHDAS (Helsinki, Finlandia)

1. ESTO NO ES UN SOLAR



DATA	2008, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Zaragoza
SUSTATZAILEA	Zaragozako Udaleko Hirigune Historikoaren Udal Batzarra Zaragoza Vivienda udal-sozietatea arduratzen da kudeaketaz
DISEINATZAILEA	Patrizia Di Monte eta Ignacio Grávalos arkitektoak
ERABILTZAILEAK	Herritarrak
AURREKONTUA	Enplegu-plan batean jatorria duen 1.000.000 €-ko diru-laguntza, honela banatua: 700.000 € langileak kontratatatzeko eta 300.000 € lanetarako eta materialerako
HASIERAKO EGOERA	Hiri-orube abandonatuak, gero eta narriatuagoak
GARAPENA	Espazio publiko moduan erabili ziren denbora batez, eta 28 orube baino gehiago berraktibatu ziren
Programa hori Zaragozako Udalaren Enplegu Planaren barruan kokatuta dago. Ekimena 2006an abiarazi zen, «Vacíos cotidianos» programaren barruan orubeetan gauzatutako esku-hartze artistiko batzuen ondoren. Programa horren bidez herritarrak Udalari orube abandonatuak berreskuratzeko eskatzera bultzatu ziren, Zaragozako hirigune historikoko espazio falta zela-eta. Eskaera horren ondorioz, Zaragoza Vivienda udal-sozietateak iraupen luzeko langabeentzako enplegu-plan bat proposatu zuen. Haren bidez hainbat orube atundu ziren (horien erabileraren lagapena jabeekin adostu ondoren), eta, hala, erabilera publiko iragankorra eman zitzaizen espazio horiei.	
BERTARA EKARTZEKO OHARRAK - Jabetzaren kudeaketa, erabilera aldi baterako lagatzeko. - Araudiaren aldaketa, trantsizioan dauden espazioetan erabilera iragankorra eransteko. - Jabetzarekiko kudeaketa eta programa berezituaren bidez egindako eraldaketa: Esto No Es Un Solar eta enplegu-programa.	



- Bottom-up ekintza batekin hasi zen, baina toki-administrazioaren esparruan gauzatzen ari da ekimena.
- Ekintza globala, udal-estrategia bat, epe luzekoa eta hainbat espazio hartuta esku-hartzerako toki gisa.

2. EL CAMPO DE LA CEBADA



DATA	2010, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Plaza de la Cebada, 28005 Madril
SUSTATZAILEA	El Campo de Cebada, FRAVM (Madrilgo Auzo Elkartearen Eskualde Federazioa), AVECLA (Erdialdea-La Latinako Auzo Elkarte) eta Madrilgo Udala (Herritarren Partaidetza eta Erdialdeko barrutiko batzordea)
DISEINATZAILEA	Auzo-elkarteak eta espazioa erabiltzen duen hainbat talde
ERABILITZAILEAK	Herritarrak
AURREKONTUA	Madrilgo Udalaren 40.000 euroko diru-laguntza Espazioa baliatzen duten taldeen autokudeaketa, hainbat jatorritako ekintza zehatzen laguntzaz
HASIERAKO EGOERA	Udal-kiroldegia bat eraitsi ondoren, orubea hutsik gelditu zen
GARAPENA	Espazio publiko gisako aldi baterako erabilera

Auzokoak, arkitektoak, kultur eragileak, auzo-elkarteak eta administrazioa elkarrekin eraldatzen ari diren espazio bat da.

La Latinako kiroldegia eraitsi ondoren sortutako 2.800 m²-ko hiri-hutsunetik eta ekipamendu zaharra ordeztzeko prestatutako proiektuaren eraikuntzaren atzerapenetik (udal-aurrekontu faltagatik) jaio zen.

El Campo de Cebada espazio publiko gisa ulertzen da. Bertan hainbat kultura- eta aisialdi-jarduera egiten dira (arte-erakusketak, udako ikastaroak, zinema-zikloak, hitzaldiak, liburu-azokak, herriko jaiak...), azpiegitura herritar ireki baten bidez.


Ura eta argindarra, lanabesak eta instalazioak baliatzea ahalbidetzen du. Bertan gauzatzen diren jardueren arabera eraldatzeko aukera ematen duen plaza bat da.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Plangintza ez gauzatzeagatik egoera iragankorrean dauden espazioei balioa ematea.
- Bottom-up ekintza batekin hasi zen, baina toki-administrazioaren esparruan gauzatzen ari da ekimena.
- Jabetzaren kudeaketa egiten da, erabilera hainbat talderi aldi baterako lagatzeko.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen ditu.



3. MARINALAB



DATA	2016, gaur egun martxan
KOKALEKUA	San Sebastián de los Reyes, Madril
SUSTATZAILEA	San Sebastián de los Reyeseko Udala
DISEINATZAILEA	Batzuk
ERABILTZAILEAK	Herritarrak
AURREKONTUA	Lurzoruaren balioa: 9.903.255,41 €
HASIERAKO EGOERA	Erabilerarik gabeko eremu militartua, Armadaren Estatu Nagusiaren Irrati Estazioaren (EREMA) egoitza
GARAPENA	Erabilera-plan batean zehazteke

2008an desafektatutzat jo zen San Sebastián de los Reyeseko Irrati Estazioa, eta Defentsako Azpiegituraren eta Ekipamenduaren Gerentziaren eskutian jarri zen. 115.109,74 m²-ko lur-eremuak 9.903.255,41 €-tan tasatu ziren, eta hiriaren ondarrera pasatu ziren balio horren truke. Udaleko osoko bilkurak onartu egin zuen Defentsa Ministerioarekin EREMAren lur-eremuak erosteko egindako hitzarmena.

2009an, Udalak eta Arkitektoen Elkargo Ofizialak nazioarteko ideia-lehiaketa bat antolatu zuten La Marina parkearen etorkizunari forma emateko, eta Ricard Rogers arkitekto ospetsuaren taldeak irabazi zuen.

Proiektuaren lehen fasea bete eta bukatu zen, baina krisialdi ekonomikoak galarazi egin zuen proiektuaren bigarren fasea gauzatzeko beharrezkoak ziren inbertitzaileak lortzea.

2016an, Udalak herritarrei zabaldu dizkie La Marinako lur-eremuak, eta haien parte-hartzera bideratutako prozesu bat abiarazi du. Ireki baino lehen, lurzoria atontzeko lanak gauzatu dira hainbat hilabetez, Madrilgo Erkidegoko Laneratzeko Planaren zati baten laguntzaz, eta horrek 22 lanpostu sortu ditu.


Prozesuak hiru fase edukiko ditu: «Mapaketa eta diagnostikoa» izeneko lehenengo etapa, «Gauzatzea eta partaidetza-prozesua» izeneko bigarren eta proposamenak erabilera-plan batean islatzeko hirugarren bat. Udalak baliabideak bideratu ditu jadanik 2016ko Udal Aurrekontuan.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Plangintza ez gauzatzeagatik egoera iragankorrean dauden espazioei balioa ematea.
- Bottom-up ekintza batekin hasi zen, baina toki-administrazioaren esparruan gauzatzen ari da ekimena.
- Jabetza kudeaketa Udalaren eskutik.
- Programa espezifiko hauen bidezko eraldaketa: Enplegu-programa eta Conquistar La Marina.
- Erakundearteko lankidetzak.
- Herritarren partaidetza-prozesua erabilera-plana diseinatze aldera.



4. PLA BUITS AMB IMPLICACIÓ TERRITORIAL I SOCIAL



DATA	2013
KOKALEKUA	Bartzelona
SUSTATZAILEA	Bartzelonako Udala
DISEINATZAILEA	
ERABILTZAILEAK	Herritarrak eta irabazi-asmorik gabeko erakunde publikoak edo pribatuak
AURREKONTUA	
HASIERAKO EGOERA	Erabilerarik gabeko hiri-orubeak
GARAPENA	Batzuk

Pla Buits hiriko irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko nahiz pribatuetara dago zuzenduta, erabilerarik gabeko orubeetan aldi baterako –urtebete, hiru urtera arte luzatu daiteke– erabilera edo jarduera interesgarri bat proposatze aldera, udal-titulartasuneko hainbat kokalekutan. Espazio horiek lurralde-premien arabera hautatu dira, horien behin betiko erabilera gauzatzeko aurreikuspen falta aintzat hartuta.

Lehiaketa publiko baten ondoren, Udaleko ordezkari osatutako ebaluazio-batzorde batek proposamenak ebaluatu eta hautatu zituen. Bartzelonako Udalak bere gain hartu du lur-eremuak atontzeko eta beharrezko zerbitzuak instalatzeko lanei dagokien gastuaren zati bat.

Proposatutako erabilerak eta jarduerak behin-behinekoak izan beharko dute, aldi baterakoak, instalazioek desmuntatzeko errazak, eta interes publikoa edo gizarte-erabilgarritasuna edukitzeko baldintza egokiak bete beharko dituzte. Ez dira onartzen izaera ekonomiko edo irabazi-asmo argia duten erabilerak edo jarduerak, baina, jarduera nagusia alde batera utzita, bateragarria izan ahalko da etekin ekonomikoa sortzen duen bigarren mailako jarduera bat, hura proiektua bera finantzatzera baino bideratzen ez bada.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Jabetzaren kudeaketa, erabilera aldi baterako lagatzeko.
- Araudiaren aldaketa, trantsizioan dauden espazioetan erabilera iragankorra eransteko.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen dituen top-down ekimena.
- Ekintza globala, metropoli-estrategia bat, epe luzekoa eta hainbat espazio hartuta esku-hartzerako toki gisa.



5. HUERTOS DE BENIMACLET



DATA	2011, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Benimaclet, Valentzia
SUSTATZAILEA	Benimacleteko Auzo Elkartea
DISEINATZAILEA	Benimacleteko Auzo Elkartea
ERABILTZAILEAK	Herritarrak
AURREKONTUA	
HASIERAKO EGOERA	Valentziako baratze-sarearen barruko zonaldea; bertan, Plan Partziala gauzatzen hasi zen, baina gelditu egin zen.
GARAPENA	Baratze-erabilera

1992an onartutako Plan Partzialak 250.000 m²-ko lur-eremu bat urbanizatzea proposatu zuen, honela banatuta: 17.673 m²-ko parke bat, bi eskola-eremu, 10.760 m²-ko kirol-eremu bat eta zerbitzu publikoetarako bi lurzati. Plan Partziala egikaritzen hasi zen, baina 2008an gelditu zen, higiezinaren krisiaren ondorioz.

Valentziako Udalak, Benimacleteko Plan Partziala egikaritzeari ekinda, eraikinak eraitsi eta baratzeak kendu zituen. Krisialdiaren eraginez, plan hori gelditu egin zen. Benimacleteko Auzo Elkartea abandonatuta zegoen 10.760 m²-ko azalera aldi baterako lagatzeko eskatu zion Udalari.

Negoiazio-esparru horretan, azkenean Valentziako Udalak espazio hori aldi baterako laga zuen, baratze moduan erabiltze aldera. Auzo Elkartea lurzorua eraberritzeko eta ureztatze-ubideak berreskuratzeko lan egin zuen. Auzo Elkartea berak kudeatzen ditu baratzeak.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Plangintza ez gauzatzeagatik egoera iragankorrean dauden espazioei balioa ematea.
- Bottom-up ekimena, lurraldearen sorkuntza eta kudeaketa komunitarioaren adibide bat.
- Jabetzaren kudeaketa, erabilera aldi baterako lagatzeko.
- Sustatutako erabilera mota.



6. INCREDIBLE EDIBLE



DATA	2007, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Todmorden, Ingalaterra
SUSTATZAILEA	Incredible Edible, Todmorden Community Team
DISEINATZAILEA	Incredible Edible, Todmorden Community Team
ERABILTZAILEAK	Herritarrak
AURREKONTUA	
HASIERAKO EGOERA	Berdeguneak
GARAPENA	Baratze-erabilera

Todmorden eko-hiriak 15.000 biztanle ditu, eta bertako 70 espazio-publikotan baino gehiagotan landu daitezke barazkiak, sendabelarrak eta arbolak. 300 boluntario arduratzen dira espazio horiek mantentzeaz eta zaintzeaz. Uzta-garaia iristen denean, edonork hartu ditzake, herritarra nahiz turista izan. Ekimen horren inguruan, kontsumo arduratsuari buruzko tailerrak, fruta- eta barazki-merkatu ekologikoak, *workshop*ak, herri-bazkariak eta beste ekimen asko egiten dira.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen dituen top-down ekimena.
- Ekintza globala, hiri-estrategiatzat hartuta, epe luzekoa eta zenbait espazio hartuta esku-hartzeko toki gisa.
- Sustatutako erabilera mota.



7. SIDE EFFECT



DATA	2010
KOKALEKUA	Bat Yam, Ort Israel eta Melacha kaleen arteko bidegurutzea, Bat Yam, Israel.
SUSTATZAILEA	Bat Yam City Council
DISEINATZAILEA	Amir Lotan paisaia-arkitektoa
ERABILTZAILEAK	Herritarrak
AURREKONTUA	62.000 €
HASIERAKO EGOERA	Abandonatze-prozesuan zegoen industria-lurzoru pribatua
GARAPENA	Espazio publikoa eta erabilera publikoko berdegunea

Bat Yam City Council-ek plan bat prestatu zuen industria-aldiri zaharra bizitegi- eta merkataritza-eremu bihurtzeko. Lehiaketa bat proposatu zen Bat Yamgo industrialdea berregituratzeko. Amir Lotan paisaia-arkitektoak, espazioa bisitatu zuenean, 2.000 m²-ko orube bat aurkitu zuen, eta orube horretan proiektu bat gauzatzea proposatu zuen. Bat Yam City Council-ek, eskakizuna aintzat hartuta, orubeari dagokionez aurreikusitako berregituraketa geldiarazi zuen eta behin-behineko espazio publiko bihurtu zuen. Partaidetza-prozesu bat egin zen. Prozesu horretan, herritarrek espazioaren erabileraren eta diseinuaren inguruko hainbat proposamen egin zituzten. Auzokoek esku-hartze aktiboa izan dute barrutiaren eraikuntzan.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Lurralde-testuinguru interesgarria, aldirietan kokatuta dagoelako.
- Industrialdea espazio publiko eta berdegune gisa berregituratzea.
- Jabetzaren kudeaketa, erabilera aldi baterako lagatzeko.
- Ekimen mistoa: bottom-up eta top-down.



8. LES RANDONNÉES PÉRIURBAINES ETA HIRI INGURUKO ATERPETXEEN SAREA



DATA	1999, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Bordeleko ertz metropolitanoa, Frantzia
SUSTATZAILEA	Bordeaux Métropol
DISEINATZAILEA	Bruit du Frigo
ERABILTZAILEAK	Herritarrak
AURREKONTUA	
HASIERAKO EGOERA	
GARAPENA	Oinezkoentzako ibilbide batez elkarri konektatutako zuzkidura-eraikinak.

Bordeleko metropoliaren ertza zehazten duen eraztuneko ateraldi-programa batean datza.

Bruit du Frigo arkitektura-estudioak, Bordeaux Metropole lankide izanik, 7 aterpetxe diseinatu ditu (mendian gaua igarotzeko urik eta argirik gabeko aterpetxeen antzekoak), eta hiriaren inguruko eraztunean eraikitzen joan dira, eremu hori zeharkatzen duen oinezkoentzako ibilbide baten barruan.

Aterpetxe horiek herritarrei lagatzen zaizkie gau bat doan pasatu ahal izateko. Aterpetxeok udal-webgune baten bitartez kudeatzen dira. Ekimen horren bidez hiriaren ingurumarietara eta mugei balioa ematen zaie.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Lurralde-testuinguru interesgarria, aldirietan kokatuta dagoelako.
- Trantsizioan dauden espazioen balioa nabarmentzea, zuzkidura publikoen bidez.
- Top-down ekimena.
- Ekintza globala, metropoli-mailako estrategiatzat, epe luzekoa eta hainbat espazio hartuta esku-hartzerako toki gisa.
- Sustatutako erabilera mota.



9. ZWISCHENNUTZUNG-ERAKO TOKIKO AGENTZIA



DATA	2005, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Berlin, Alemania
SUSTATZAILEA	Hiriko Garapenerako Zinegotzigoa
DISEINATZAILEA	Batzuk
ERABILTZAILEAK	Batzuk
AURREKONTUA	
HASIERAKO EGOERA	1.000 orube huts, erabilerarik gabeko hilerrien 143 hektarea, itxitako aireportu bat erdigunean eta industria abandonatuen 500 hektarea.
GARAPENA	Erabilerarik gabeko espazio ugari berraktibatzea, hainbat motatako erabilera eta ekimenen bidez. Bitarteko erabilerak aintzat hartzeko lege-figura berria. Bitarteko erabilerak kudeatzeko agentzia sortzea.

2005ean, Berlingo Udalak lege-figura berri bat onartu zuen hiri-kudeaketa arintzeko xedez: bitarteko erabilera edo Zwischennutzung izenekoa.

Zwischennutzung-erako Tokiko Agentzia sortu zen, Europar Batasunaren funtsen babesarekin, erabilerarik gabeko hiri-espazioak aldi baterako erabileren bidez dinamizatzeko helburuz. Agentziak negozio- eta bitartekotza-funtzioa betetzen du esku hartzen duten alderdien artean.

Aldi berean, Udalak orubeen katastro- eta kudeaketa-zerbitzu bat ireki zuen Interneten, Baulückenmanagement eta Liegenschaftsfonds izenekoa, proiektu ekintzaile eta sozialak erakartzeko. Horretarako, espazio horiek aldi baterako erabiltzera gonbidatzen ditu, askotan zenbait urtez luzoraren edo espazioaren alokairua ez ordaintzearen truke, edo norberak bere eraberritzea ordaintzeko baldintzarekin.

Maizterrek ez dute zergarik ordaintzen jardueraren lehenengo aldian, eta burokrazia-izapide sinplifikatuak izaten dituzte; trukean, orubearen eta inguruaren mantentze-lanez eta garbiketaz arduratu behar dute. Horrez gain, araudia betetzeko eskakizuna askoz arinagoa da ohiko hirigintzaren kasuan baino.

Halaber, aholkularitza-zerbitzu bat eskaintzen du lokalaren gutxiengo zaharberritzeak eskatuko lukeen aurrekontua kalkulatzeko, bai eta mikrokredituak emateko ere. Noizbehinka bide publikoa okupatzeko, aski da alde zuzenetik jakinaraztea.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Trantsizioan dauden espazioen balioztatzea, erabilera iragankorren bidez.
- Araudiaren aldaketa, erabilera iragankorra eransteko.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen dituen top-down ekimena.
- Askotariko eragileak eta erabilera eta mota askotako ekimenak.
- Jabetzaren kudeaketa, erabilera aldi baterako lagatzeko.
- Jabetzarekiko kudeaketa eta programa berezituaren bidez egindako eraldaketa: Udal-agentzia, jabeen eta maizterren arteko bitartekotza-programa, orubeen erregistroa, aholkularitza, etab.
- Burokrazia-izapideak sinplifikatzearren, zerga-salbuespenen eta abarren bidez erabilera iragankorrak proposatzen dituzten ekimenen babesa.
- Ekintza globala, metropoli-mailako estrategiatzat, epe luzekoa eta hainbat espazio hartuta esku-hartzerako toki gisa.
- Antolamenduaren barruan figura legal berriak gehitzea.



10. MONTENOSO



DATA	2014, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Galizia
SUSTATZAILEA	Artesans da Innovació, Rural- Contemporánea, Tecnoloxía/s Apropiaada/s, Fur Alle Falle, Innoto, Constelaciones
DISEINATZAILEA	Luigi Pirelli (GIS Mapping-ean aditua, OSGeo Italian local chapter-en sortzailea), Begoña Carrera (abokatua, ingurumen-gaietan aditua), Miriam Alonso (ikerlaria), Eliana Bouzas (gizarte-hezitzailea), Eloisa Piñeiro (Comuns, Feminismos e ruralidades taldearen ordezkaria)
ERABILTZAILEAK	Komuneroak
AURREKONTUA	
HASIERAKO EGOERA	
GARAPENA	Lurralde-kudeaketa eta -bitartekotzarako erakunde bat sortzea

Galizian 2.800 auzo-mendi baino gehiago daude herritarren esku. Mendien guztizko azaleraren % 25 inguru hartzen dute. Komunitate-jabetzak dira, eta 150.000 komunero baino gehiagok kudeatzen dituzte. Jabetza publiko/pribatu dikotomiarako alternatiba bat dira, bai eta lurraldeen, baliabideen eta landa-alorreko ondasunen herri-kudeaketaren adibide ere.

Montenoso lankidetzazko sorkuntza irekiko komunitate bat da, eta komunitateen eta beren mekanismo eta dinamiken inguruko diskurtsoak eguneratzen eta birplanteatzen ditu, elkarri laguntzeko lankidetzazko-jardunbideak eta dinamika asanblearioak oinarritzat hartuta.

Komuneroei herri-basoen kudeaketari eusten laguntzea du helburu.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Lurralde-mailako jarduketa.
- Lurralde-testuinguru interesgarria, landa-eremua delako.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen dituen bottom-up ekimena.



11. HIRIKO ONDASUN KOMUNAK ZAINTEKO ETA ERABERRITZEKO HERRITARREN ETA ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZARI BURUZKO ERREGELAMENDUA



Comune di Bologna

DATA	2014
KOKALEKUA	Bolonia, Italia
SUSTATZAILEA	Boloniako Udala, Labsus, Centro Antartide eta Fondazione del Monte laguntzaile izanik
DISEINATZAILEA	Boloniako Udala eta Labsus
ERABILTZAILEAK	Herritarak
AURREKONTUA	
HASIERAKO EGOERA	
GARAPENA	Ondasun komunak kudeatzeko eta erabiltzeko erregelamendua

Boloniako Udalak (Italia), Labsus, Centro Antartide eta Fondazione del Monte laguntzaile izanik, erregelamendu hori prestatu du, «Hiriak ondasun komun gisa» proiektuaren barruan. Horrek ondasun komunak zaintzeko modu berriekin saiakuntzak egiten ditu, administrazio partekatuko eredu baten esparruan.

Lankidetzaitune buruzko araudiak 36 artikulatu ditu eta *patti di collaborazione* (lankidetzaitunak) deituriko ekintzen bidez hiriko ondasun komunak zaintzeko eta kudeatzeko laguntza motak arautzen ditu. Araudi horretan, espazio publikoetan nahiz eraikinetan eta bestelako ondasunetan egin daitezkeen berreskurapen, eraldatze eta berritze esku-hartzeak jasotzen dira. Ekimen horien herritarren eta udalaren arteko kudeaketa partekatua zehazten da.

Ondasun komunak babesteko eta kudeatzeko lankidetzaitun horiek ez dute herritar aktiboen konpromisoa bakarrik eskatzen. Udal-administrazio publikoak garrantzizko funtzioa hartzen du bere gain, gazteen artean jarrera aktiboa eta arduratsua sustatzea baita, hain zuzen, bere zeregin garrantzitsuenetako bat. Salbuespenak eta errazte-ordainsariak eta espazio komunetara sartzeko tokiko zergak, lanerako babes-materiala eta -ekipamendua hornitzetik hasita diseinurako langile espezializatuen laguntzara; jarduerak finantzatzeko baliabideak hornitzea, hala nola autofinantzatzen laguntzeko egindako gastuak itzultzea, parte hartzen duten administrazio-instalazioetarako ezarritako ekintzak aintzatesteko moduen bidez.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Lurraldearen eta ondasun komunaren sorkuntzarako eta kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzeko araudiaren aldaketa.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen dituen top-down ekimena.
- Ekintza globala, metropoli-mailako estrategia gisa.



12. ARTSCAPE, WYCHWOOD BARNs



DATA	2008
KOKALEKUA	Toronto, Kanada.
SUSTATZAILEA	Toronto City Council
DISEINATZAILEA	Du toit Architects
ERABILTZAILEAK	Herritarrak
AURREKONTUA	17.620.000,00 €
HASIERAKO EGOERA	Erabilerarik gabeko garraio-azpiegiturak
GARAPENA	Hezkuntza-zuzkidura

Taddlewood Heritage Association elkarteak 20.000 m²-ko hangar batean kokatuta zeuden tranbia-garajeak eraisteari buruz agertutako kexen aurrean, Torontoko Udalak partaidetza-prozesu bat abiarazi zuen espazio horri etorkizunean eman beharreko erabilerei buruz hausnartzeko. Garajeen eraisketa geldiarazi ondoren, horiek diseinatzeko, birmoldatzeko eta etorkizunean kudeatzeko lizitazio publikoko prozesu bat hasi zen.

Artscape taldeak, Stop Community Food Centre GKEarekin lankidetzan, etorkizuneko zuzkiduraren diseinua egin zuen, eta elikadura-hezkuntzako zentro baten sorrera jaso zuen. Proiektuaren xehetasunak aurkeztu ziren eta herritarrekin adostu ziren. Du toit Architects arduratu da eraikinen proiektua egiteaz eta aldameneko lur-eremuak birgaitzeaz. Wychwood Barns elkarteak, berriz, proiektua kudeatu du.


Jarduketaren finantzazioa funts publikoetatik (Kanadako ondarea kontserbatzeko erantzukizuna duen erakundearen eskutik) eta pribatuetatik (aldameneko sustapen baten jabeak emanda, bere orubearen gehiegizko eraikigarritasuna proiektura bideratutako funtsen bidez orekatu du) etorritako aurrekontu baten bidez gauzatu da.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Lurralde-testuinguru interesgarria, aldirietan kokatuta dagoelako eta azpiegitura-erabilerarako delako.
- Trantsizioan dauden espazioen balioztatzea, zuzkidura publikoen bidez.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen dituen ekimen mistoa (bottom-up eta top-down).
- Jabetzaren kudeaketa, erabilera aldi baterako lagatzeko.
- Finantzazio publiko-pribatua.



13. SVARTLAMOEN NURSERY



DATA	2011
KOKALEKUA	Trondheim, Norvegia
SUSTATZAILEA	Trondheimgo Udala
DISEINATZAILEA	Brendeland & Kristoffersen
ERABILTZAILEAK	Herritarrak
AURREKONTUA	1.449.774 €
HASIERAKO EGOERA	Erabilerarik gabeko hirugarren sektoreko eraikin pribatua
GARAPENA	Hezkuntza-zuzkidura publikoa

Zenbait gizarte- eta komunitate-mugimenduk oihartzun handiko protesta bat abiarazi zuten, Mazda enpresaren 478 m²-ko eraikin bat handitzearen aurka, Udalak handitze-lizentzia eman ondoren.

Protesten aurrean, udaleko osoko bilkurak garajea eraisteko agindu zuen, eta, ordainetan, jabeari beste orube bat eta ordain ekonomiko bat eman zizkion.

Auzo-elkarte nagusiak proiektu bat idatzi eta diseinatu zuen, Haur Hezkuntzako eskola publiko bat eraikitzeko, eta Udalak hura finantzatu eta kudeatu zuen.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Bottom-up ekintza batekin hasi zen, baina administrazioaren esparruan gauzatu zen ekimena.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen ditu.
- Jabetza kudeaketa Udalaren eskutik.
- Jabetzaren kudeaketa, erabilera aldi baterako lagatzeko eta aldatzeko.



14. ASTRA GERNIKA



DATA	2006, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Gernika, Bizkaia
SUSTATZAILEA	Astra-Gernika eta bestelako taldeak
DISEINATZAILEA	Astra Koordinadora
ERABILTZAILEAK	Herritarrak eta gizarte-mugimenduak
AURREKONTUA	
HASIERAKO EGOERA	Abandonatze-prozesuan zegoen industria-lurzoru pribatua eta ondare historikotzat jotako industria-eraikina
GARAPENA	Kultur zuzkidura publikoa

Jatorrizko eraikina 1916an eraiki eta arma-ekoizpenera bideratu zen; berau eta bere ingurua abandonatuta eta narriatuta zeuden. Industria-pabilloi zaharra, gainera, ondare historiko izendatu zen.

Hura birgaitzearen inguruko eztabaidari ekin zitzaion, bertako zenbait gizarte-mugimenduk eraikina okupatu eta haren jabetza publikoa eta zuzkidura-erabilera aldarrikatu eta gero.

Gizarte-mugimenduek sustatutako eta Euskal Herriko Unibertsitateak babestutako herri-mailako partaidetza-prozesu baten ondoren, Udalak lurzorua eta eraikina erosi zituen jendaurreko enkaute baten bidez.

Ondoren, Udalak eta Astra Koordinadora elkarteak horiek kudeatzeko eta erabiltzeko hitzarmen bat sinatu zuten.

Atontze-kostuak eta espazioaren dinamizazioa Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza batekin finantzatu ziren.


Lantegiak 2.600 m² baino gehiagoko azalera dauka, hiru solairutan banatuta, komunitate- eta kultura-erabilerarako.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Trantsizioan dauden espazioak balioztatzea, zuzkidura publikoen bidez.
- Plangintza ez gauzatzeagatik egoera iragankorrean dauden espazioei balioa ematea.
- Bottom-up ekintza batekin hasi zen, baina toki-administrazioaren esparruan gauzatzen ari da ekimena.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen ditu.
- Jabetza kudeaketa Udalaren eskutik.
- Erakundearteko lankidetzak.
- Diseinura bideratutako herritarren partaidetza-prozesua.



15. CAN BATLÓ



DATA	2011, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Bartzelona
SUSTATZAILEA	Can Batlló asanblada eta Bartzelonako Udala
DISEINATZAILEA	Can Batlló asanblea eta beste batzuk
ERABILTZAILEAK	Enpresa kooperatiboak, kultura- eta gizarte-eragileak eta herritarrak
AURREKONTUA	2.651.758 €-ko etorkizuneko inbertsio publikoa
HASIERAKO EGOERA	Industria-lurzorua pribatua eta industria-eraikina abandonatze-prozesuan zeuden
GARAPENA	Mistoa: kultura- eta hezkuntza-zuzkidurak, espazio libreak eta berdeguneak; hirugarren sektoreko erabilera

Can Batlló 1880ko hamarkadaren amaierako lantegi-barruti zaharra da, eta Bartzelonako La Bordeta auzoaren azaleraren % 25 hartzen du. Barrutiaren barruko 14 hektarea itxita eta erabili gabe egon dira duela 5 urte arte.

2011n, Can Batllóko auzo-elkarteak zonaldeko eraikin batzuk okupatu zituen eta horiek birgaitzeari ekin zion. Udalak pabilioi nagusietako bat erosi eta laga zuen, eta, hala, espazioa talde-erabilerako eta -kudeaketako ekipamendu bilakatu da, irekia eta auzotarrek zuzenean kudeatutakoa. Gaur egun, komunitatean kudeatutako ekipamendu publikoa da, eta komunitate-kudeaketako liburutegi bat, auditorium bat, bulegoak, eskola libre bat, artisautza-lantegiak eta hainbat espazio libre eta berdegune hartzen ditu barne, bai eta hiri-baratze bat eta kirol-eremuak ere.

Autokudeaketaren bidez finantzatzen bada ere, sektore publikoarekiko lotura dauka, BcnActiva, SOC, Generalitatearen Ekonomia Sozial eta Kooperatiboko Zuzendaritza Nagusia, hainbat unibertsitate, BAGURSA, Hezkuntza Saila edo Udaleko Etxebizitza Patronaturen bidez, horiek bertan gauzatzen diren proiektuetako batzuk babesten eta finantzatzen baitituzte.

Plangintzak, gaur egun dauden ekimenak mantentzeaz eta finkatzeaz gain, horiek beste metropoli-zuzkidura publikoekin eta etxebizitza babestu eta libreekin zabaltzen eta osatzen ditu.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Trantsizioan dauden espazioak balioztatzea, zuzkidura publikoen eta erabilera iragankorren bidez.
- Plangintza ez gauzatzeagatik egoera iragankorrean dauden espazioei balioa ematea.
- Bottom-up ekintza batekin hasi zen, baina toki-administrazioaren esparruan gauzatzen ari da ekimena.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen ditu.
- Jabetza kudeaketa Udalaren eskutik.
- Erakundearteko lankidetzak.
- Erabileren eta jardueren nahasketa.
- Hasieran iragankor gisa gauzatutako espazio eta zuzkidurak antolamenduaren barruan sartzea eta finkatzea.



16. DARWIN-ÉCOSYSTÈME



DATA	2005, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Bordele, Frantzia
SUSTATZAILEA	SAS DARWIN-BASTIDE elkarte
DISEINATZAILEA	SARL d'architecture Virginie Gravière et Olivier Martin, BETREM, l'incubateur Evolution (INOXIA)
ERABILTZAILEAK	Enpresak, gizarte- eta kultura-eragileak eta herritarrak
AURREKONTUA	13.000.000 € lurzorurako eta birgaitzerako 6.000.000 € bultzatu eta sustatzeko
HASIERAKO EGOERA	Erabilerarik gabeko industria-lurzu pribatua eta industria-eraikinen gunea
GARAPENA	Hainbat erabilera

Biltegi militarretara bideratutako 10.000 m²-ko poligono bat zeukan espazioa zen jatorrian.

Hainbat urtez abandonatuta egon eta gero, 2005ean *l'incubateur Evolution (INOXIA)* taldeak poligonoa erostea proposatu zion *Communauté Urbaine de Bordeaux* erakundeari, diziplina anitzeko proiektu bat sortzeko eta bertan enpresen eta kultur jardueren lankidetz-ekosistema bat eratzeko.

l'incubateur Evolution (INOXIA) taldeak SAS DARWIN-BASTIDE elkarte eratu zuen, eta hark, aldi berean, ARCHIPEL ISR erantzukizuneko inbertsio-funtsa sortu zuen. Zenbait urtez Udalarekin negoziatu ondoren, lurzoru eta poligonoak erosi zituzten, horiek faseka birgaitze aldera. Birgaitze-prozesu horretan, 5.700 m²-ko bulego-eremu bat antolatu da, merkataritza-lokaletarako 1.700 m², kultura- eta kirol-eremuak eta espazio libreak.

Nahiz eta proiektuak laguntza ekonomiko publikoren bat eduki, finantzazioa inbertitzaile pribatuengandik eta enpresetatik dator batik bat.

BERTARA EKARTZEKO OHARRAK

- Lurralde-testuinguru interesgarria, aldirietan kokatuta dagoelako eta industria-erabilerarako delako.
- Trantsizioan dauden espazioen balioztatzea, zuzkidura pribatuen bidez.
- Lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen ditu.
- Jabetza kudeaketa Udalaren eskutik.
- Lankidetz eta finantzazio publiko-pribatua.
- Erabileren eta jardueren nahasketa.



17. KAAPELITEHDAS



DATA	1987, gaur egun martxan
KOKALEKUA	Helsinki, Finlandia
SUSTATZAILEA	Helsinki Udalak eta Pro Kaapeli
DISEINATZAILEA	Pro Kaapeli
ERABILTZAILEAK	Enpresak, artistak eta herritarrak
AURREKONTUA	
HASIERAKO EGOERA	Erabilerarik gabeko industria-lurzorua pribatua eta industria-eraikinen gunea
GARAPENA	Antzokiak, museoak, arte-galeriak eta lantokiak barne hartzen dituen kultur gunea.
Jatorrian, eraikin-multzoak 56.000 m²-ko industria-lurzorua hartzen zuen. Nokia enpresa haren jabe egin zen, eta, aldi berean, industria-guneko zonalde eta eraikin asko erabilerarik gabe geldituz joan ziren. Hiriko zenbait kultur taldek eraikin batzuk okupatu ondoren, enpresa jabea inguruko artistentzako eta ekintzaileentzako alokairu merkeak negoziatzen hasi zen. 1987an, Helsinkiko Udalak lurzorua erosi zion enpresa jabeari. Pro Kaapeli elkarteak sortu zen, zonaldea kudeatzeko eta dinamizatzeko helburuarekin. Bertan hiru museo, hamabi galeria, dantza-antzokiak, arte-eskolak eta bulego eta lantegientzako espazioak daude. Guztira 900 lagunek lan egiten dute bertan.	
BERTARA EKARTZEKO OHARRAK • Trantsizioan dauden espazioen balioztatzea, zuzkidura pribatuen bidez. • Lurralde-sorkuntarako eta -kudeaketarako lankidetzazko ereduak sustatzen ditu. • Jabetza kudeaketa Udalaren eskutik. • Lankidetzak eta finantzazio publiko-pribatua. • Erabileren eta jardueren nahasketa.	




bertarako ekartzeko lehen oharak

Orain arte deskribatutako jardunbideen azterketatik abiatuta, zenbait neurri eta ekintza atera dira gure lurraldera ekartzeko aukera aztertze aldera, trantsizioan dauden espazioak, erabilera iragankorrak eta horiek sortzeko eta kudeatzeko lankidetzazko ereduak modu koordinatu eta seguruan eraldatzeko eta balioztatze xedez. Azterketa-iturri moduan hartutako esperientziak eta ereduak (aniztasun- eta ordezkagarritasun-irizpideen arabera hautatuak), nahiz eta sortu berriak eta esperimentalak izan, adibide arrakastatsuak dira tipologia-, erabilera- eta kudeaketa-errealitate berri horiei erantzuna emateko orduan; hortaz, susmatzen da testuinguru horietan gauzatutako ekintzetako asko bertara ekar daitezkeela.

Hala, administrazio publikoari eragiten dioten kudeaketa-estrategiei eta -ereduei eman zaie arreta, bereziki lege-ekintzari, politika publikoei, antolamenduari, kontratazioari eta bitartekotzari lotutako ekintzekin zerikusia dutenei.

Bertara ekartzeko aukerak antolatze aldera, hautemandako ekintzak hierarkikoki sailkatu dira, lege-mailan daudenetatik hasita eragindako alderdien arteko bitartekotza-ekintzetara jaisteraino.



Jarraian laburtzen dira alde zuzenetik jasotako estatuko eta nazioarteko ekimenen katalogoan antzemandako ekintzak, hain zuzen baliozkotzat eta jardunbide egokitzat jotzen ditugunak hizpide dugun gaiari dagokionez: trantsizioan dauden espazioak balioztatzea eta aktibatzea, erabilera iragankorretatik eta lurralde-sorkuntzako eta -kudeaketako lankidetzazko ereduak pean.

LEGE-EKINTZAK

— Herriarren eta administrazioaren arteko «lankidetzazko-itunak», interes orokorreko jarduerak gauzatzeko herri-ekimen autonomoak sustatze aldera. Itun horiek hiriko ondasun komunei dagokien laguntza-, zaintza- eta kudeaketa-erak arautzen dituzte. Erregelamenduak espresuki aurreikusten ditu erabilerarik gabeko espazio edo erakinen lagapena edota espazioak emateko orduan tasa- eta zerga-murrizpenean oinarritutako laguntzeko era posibleak, bai eta hiri-ondasun publikoak diseinatzeko lankidetzazko moduak ere.



- «Erabilera iragankor» lurzoruaren erabileraren izendapen gisa, Udal Hirigintza Plangintzan txertatua. Izendapen hori duten lurzoruaren gainean ezingo da inolako ekintzarik edo eraldaketarik gauzatzeko plangintzarik egin, eta interes orokorreko ekimen sozialei eta pribatuei aukera emango zaie erabilera eta eraldaketa iragankorrak sustatzeko, epe mugatu eta berrikusgarri baterako.

LURRALDE-POLITIKAK ETA GIDALERROAK

- Lurralde-mailako gizarte-organismo edo -kontseilu bat sortzea, gizartea eta herritarrak ordezkatzuta eta ondasun komunak kudeatzeko aldera. Kontseilu horrek partaidetza-organismo baten moduan funtzionatzen du, ondasun publikoen lurralde-antolamenduaren eta -kudeaketaren inguruko koordinaziora eta gizarte-inplikaziora bideratua.

HIRIGINTZA-PLANGINTZA

- Lurzoruaren erabileraren aldaketa –izendapen globala eta/edo xehatua–, hura berraktibatzeke eta honako egoera hauetan –interes orokorrekarekin– erabiltzeko:

* Plangintza ez gauzatzea eta/edo gauzatuko denik ez aurreikustea.

* Abandonatua eta/edo erabili gabe egotea, orubeen eta eraikinen kasuan (bereziki industria-erabilerakoak).

- Erabilera iragankorrak plangintzan gehitzea, abandonatuta edo erabili gabe dauden hainbat espazio berraktibatzeke bide gisa.

* Lurzoru horietan modu iragankorrean gauzatutako erabilera berrien finkatze posiblea epe ertainean/luzean.

- Titulartasun publikoko orubeak zuzkidura-erabileretarako birkalifikatzea, erabilera iragankorren bidez gauzatzeko, hurrengo baldintzak aintzat hartuta:

* Herriaren intereseko eta gizartearen onurako jarduerak.

* Iraupena: 1-3 urte.

* Eraikuntza-baldintzak: aldi baterakoa izatea eta erraz desmuntatzea.

* Irabazi-asmorik gabeko jarduera: nor bere burua finantzatzeko soilik baimendutako jarduera ekonomikoa.

PROGRAMAK ETA KONTRATAZIO PUBLIKOA

- Bitarteko erabileretarako Tokiko Agentzia bat sortzea, trantsizioan dauden espazioen erabilera eta eraldaketa iragankorra sustatzeko.

- Bitarteko erabilerak edo erabilera iragankorrak barne hartzera bideratuta dauden erabilerarik gabeko edo abandonatutako lurzoruaren eta espazioen katastro-erregistroa (on-line).

- Herritarrek ondasun publikoak eta komunak atontzeko aurrekontuaren zuzkidura, (aurretik deskribatutako) «lankidetzat-itunen» esparruan.
- Iraupen luzeko langabeei zuzendutako enplegu-plana, abandonatuta eta erabili gabe dauden orubeak eta eraikinak birgaitzeko.
- Abandonatuta eta erabili gabe dauden orubeen erabilera eta kudeaketa lagatzeko lehiaketa publikoa.

BITARTEKOTZA ETA HITZARMENAK

- Jabetzaren kudeaketa herri-administrazioetik, lurzoru publikoen nahiz titulartasun pribatuko aldi baterako lagapena sustatzeko.

* Erabilera taldeei eta elkarteei aldi baterako lagatzea

- Abandonatuta edo erabili gabe dauden lurzoruen jabeen eta talde/ekimen sozialen edo pribatuen arteko bitartekotza-zerbitzuak, horien alokairua eta aldi baterako okupazioa sustatzeko:

* Bitartekotza publikoa alokairuan –baita kosturik gabe ere maizterrentzat– denbora-tarte jakin baterako, maizterrek jabetza birgaitzearen eta mantentzearen kostua beren gain hartzearen ordainetan.

* Zerga-salbuespena, interes orokorreko jardueren bidez trantsizioan dauden espazioak berraktibatzea eta erabiltzea sustatzen duten talde sozialentzat eta/edo ekimen pribatuentzat, jarduerako lehenengo urtean.

- Trantsizioan dauden espazioetan erabilera iragankorrak sustatzeko laguntza- eta aholkularitza-zerbitzu publikoak:

* Aholkularitza ekonomikoko eta mikrokredituak emateko zerbitzuak, interes orokorreko jardueren bidez trantsizioan dauden espazioak berraktibatzea eta erabiltzea sustatzen duten talde sozialentzat eta/edo ekimen pribatuentzat.

Trantsizioan dauden espazioetan erabilera iragankorrak sustatzeko burokrazia-izapide sinplifikatuak.



4. EGUNGO ESPARRUAREN GABEZIAK ETA AUKERAK

EAEko lurralde-antolamenduari buruzko 4/1990 Legea, EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea eta EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) Berrikuspenaren 2015eko Oinarrizko Dokumentua aztertuta, Euskadiko etorkizuneko LAGen barruan trantsizioan dauden espazioak (eta erabilera iragankorren bidezko eta lurralde-sorkuntza eta -kudeaketarako lankidetzaren ereduak) aintzat hartzeko orduan gabezia eta/edo aukera bat izan daitezkeen zenbait alderdi eta puntu atera eta nabarmendu dira.

Jarraian azterketa horri dagokion tresna bakoitzaren laburpen bat jaso da.

4/1990 Legea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa

4/1990 Legearen funtzioen artean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduko tresnen formulazio mailakaturik aurki daitezke. Bere zehaztapenen artean antolamendu-erako koordinazioari eta aholkularitzari dagokionak aurki daitezke; hortaz, bertan zehazten eta xehatzen da zer organok betetzen duten funtzio hori.

Guri eragiten diguten antolamenduei dagokienez, eta bereziki herritarrekiko eta eragileekiko lankidetzan eta baterako sorkuntzan oinarritutako lurralde-sorkuntzako eta -kudeaketako beste eredu batzuen bilaketari dagokienez, IV. tituluan zenbait gabezia aurki daitezke. Legearen atal horretan ez da zehazten herritarrek eta lurralde-antolamenduaren arloan ukitutako eragileek parte har dezaten bideratutako gizarte-partaidetzarako organo espezifikorik.

IV. TITULUA. Elkar hartzeaz eta aholku emateaz 28. art.

Euskal Herriko Lurralde-antolakuntzako Batzordea eta Lurralde eta Hiri-antolakuntzari buruzkoan Euskal Autonomia Erkidegoko elkar hartzeko aholku emateko jardute-saila, eta lege honek, beste edozein legeko manuk eta araudiz finkatu daitezkeen izenda diezazkioten aginpide eta egitekoak izango ditu.

IV. TITULUA. Elkar hartzeaz eta aholku emateaz 29. art.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroko Sailburua izango da Euskal Herriko Lurralde-antolakuntzako Batzordeko buru eta horretan, araudiz finkatu dadin eran, Administrazio Publiko guztietako ordezkariak izango dira kide. Batzorde horretako Administrazio-idazkaritza, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailean, gaiaren eretxean, horretarako gaitasuna duen Zuzendaritzari atxikiko zaio.

IV. TITULUA. Elkar hartzeaz eta aholku emateaz 30. art.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde-antolakuntzako Aholku-batzordea Hirigintza Etxebizitza eta Ingurugiroko Sailari atxikitako eskuharmenterako saila da, eta Eusko Jaurlaritzaren lurralde-politikak izan behar duen



kidekaketa eta Autonomia Erkidegoko lurralde-antolakuntzan gizarteak partaidetza izatea bermatuko du. Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko ordezkari banak eta, beren lanbideetatik edo lurralde-antolakuntzarekin zerikusirik izanezko arazoetan duten ordezkotzagatik egokitzen jotako herritarren artean aukeratutako beste hainbeste kidek osatuko dute.

Eusko Jaurlaritzako Sailen eta Lurralde-antolakuntzako Batzordearen hurrenez-hurreneko saloiz, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro-sailburuak izendatuko ditu.

Egitekoak, osaera eta jardunbidea araudiz ezarriko dira.

Euskadiko lurralde-antolamenduko gidalerroen berrikuspena

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) Berrikuspenaren Oinarrizko Dokumentuari erreparatuta, esan dezakegu gabezia baino aukera gehiago dagoela aurkeztu diren estrategia iragankorrak gehitzeari dagokionez. Horren arrazoia da ez dela ikuspegi orokorraren eta taktika mota horren arteko kontraesanik gertatzen. Espazituko gehitu ez arren, lurralde-ereduaren oinarriak eta LAGen zenbait kapitulutik jasotzen diren norabideak eta helburuak ezartzen dituzte lurraldean estrategia iragankorrak eta sorkuntzarako lankidetzak-ereduak gehitu ahal izateko oinarriak.

Azterketa honek jorratzen dituen gaiak erreparatuta (trantsizioan dauden espazioak, erabilera iragankorrak, lurralde-sorkuntza eta -kudeaketarako lankidetzak-ereduen bidezko eraldaketa posibleak), landu ditugun kapituluak Lurralde Ereduaren Oinarriak (II. kap.), Hirigunea (VIII. kap.) Gobernantza (XII. kap.) dute hizpide.

LURRALDE-EREDUAREN OINARRIAK

Lurralde-ereduaren definizioan oinarriak berrikustea proposatzen da, 5 ikuspegiren bitartez: lurralde adimentsua, lurralde jasangarria, lurralde sozial eta integratzailea, barne-lotura sendoko lurraldea eta lurralde parte-hartzailea. Ikuspegi gehienetan, erreferentzia zuzena egiten zaio guri dagokigun gaiari, bai gabeziak eta bai aukerak aurkeztuta.

Lurralde-eredu adimentsuari dagokionez, eta lurraldea nahikoa artifizial bilakatu dela onartuta, beharrezkoa da dagoeneko urbanizatuta dagoen horren erabilera eta aprobetxamendua hobetzea eta espazio gehiago artifizial bilaka daitezela saihestea. Diagnostiko hori gorabehera, hobetze-bide posibleak proposatzeko orduan, ez dira beste aukera batzuk aipatzen, hala nola trantsizioan dauden espazioak eraberritzearen bidez hiri-sarea finkatzea, estrategia iragankorren bitartez. Ikuspegi horretan nabarmendu egiten da proiektu berritzaileen bilaketa, baina ez da aipatzen lurralde-kudeaketarako ereduaren berrikuntzak egiteko aukera, eta hala sustatzen dira, adibidez, ondasun publikoen eta lurraldearen sorkuntzarako eta kudeaketarako lankidetzak-ereduak.

Lurralde sozial eta integratzailearen ikuspegiari dagokionez, hiriaren eta zaharkituta eta erabili gabe dauden espazioen eraberritzea aipatzen da. Hori aukera ona da erabilera iragankorrak espazio horien balioa handitzeko eta horiek ustiatzeko bide posible gisa gehitzeko.

Bestalde, lurralde parte-hartzailearen ikuspegian, aipatu egiten da parte-hartzea gidalerroen berrikusketa-prozesutik eta bestelako antolamendu-tresnetatik harago hedatzeko beharra. Horrek aukera interesgarria aurkeztu du, trantsizioan dauden espazioei dagokionez, lankidetzatik hurbilago dauden sorkuntza- eta kudeaketa-mekanismoak ezartzeko; hala ere, bultzatu nahi den partaidetza-eredua edo mekanismo horien ikuspegia xehetasun handiagoz gauzatzen ez denez, aukerak zenbait arrisku ditu aldi berean. Aipatutako aldaketaren hedapena definitzen ez denez, arriskua dago eredu parte-hartzaileagoetarantz aurrera egiteko behar hori modu askotan eta askotarikoan ulertzeko.

Bestalde, atal horretan bertan zehazten da parte-hartzeak entzunaldi publikoaren eta informazioaren lege-izapideak gainditu behar dituela, eta egitate hori aurrerapen eta aukera garrantzitsutzat aitortzen da, baina ez da parte-hartze gisa ulertzen denaren definiziorik gauzatzen. Horrek zaildu egin lezake espazio-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzak-eredua gauzatzea –trantsizioan dauden espazioei erreparatuta–, tresnen berrikusketa- eta onarpen-prozesuetatik haragoko kanalak eta bideak errazten dituen toki horretan.

HIRIGUNEA

Hiriguneari dagokion VIII. kapitulua da trantsizioan dauden espazioak eta erabilera iragankorrak aintzat hartzeko gabezien eta aukeren azterketan alderdi azpimarragarrienak jasotzen dituenak. Gidalerroen atal horretarako planteatzen den ikuspegiak esparru egokia aurkeztu du guri eragiten diguten antolamenduak gehitzeko.

Atal horretan behin eta berriro aipatzen da hiri-kokalekuen dentsitatea berreskuratzeko beharra, besteen artean jadanik eraikitako espazioak berrerabiltzearen bidez. Gainera, hiri-jasangarritasunean eta -berrikuntzan oinarritutako lurralde-estrategiei ematen zaie garrantzia, eta dagoeneko okupatuta dauden espazioetan birziklapena eta erabilera berriak lehenesten dira. Ikuspegi orokor hori haztegi ezin hobe da espazio batzuk trantsizioan dauden erabileren edo bitarteko erabileren bitartez birgaitu beharreko trantsizio-espazio gisa identifikatzeko ideia gehitze aldera.

Halaber, hiriak birgaitzeko eta berregituratzeko estrategia planteatzeko orduan, besteen artean hitz egiten da jarduera ekonomikoetara bideratu ziren eta gaur egun erabili gabe dauden espazio libreen eta eraikinen gabezia duten eremuez, eta horien aurrean honako hau proposatzen da: Urbanizatutako espazioak trinkotzeari lehentasuna ematea eta zaharkitutako edo narritutako espazioak birziklatzea; gutxiegi erabilitako espazioak baliatzea; hutsuneak jalkinez betetzea, eta hiri-, arkitektura- eta kultura-ondarearen berreskurapena sustatzea, aisiarako eremuak eta berdeguneak gehitzearen bidez. Ikuspegi horrek aukera ezin hobe aurkeztu du estrategia iragankorrak gehitzeko.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruen lurralde-jasangarritasunari dagokionez, aipatu egiten da bertako industria-lurzoruen balioztatzeak eta jarduera ekonomikoak hiriko bizitzarekin bateragarri egiteko erabileren izaera mistoa sustatzeko beharra. Ikuspegi horrek aukerak eskaintzen ditu, esaterako, erabilera industrialetik haragoko beste erabilera mota baten bidez industria-lurzuak eta -eraikinak berraktibatzeak aukera proposatzeko, edo erabilera iragankorren bidez jarduera ekonomikoetara bideratutako eta gutxi erabilitako lurzoruak baliatzeko. Hala eta guztiz ere, ezinbestekoa da alderdiaren egoeran ekonomia-ereduaren aldaketaren ondorioz zaharkitutako lurzoruak eta eraikinen agerpenari buruzko aipamena egitea, bai eta horiek jarduera ekonomikoak gauzatzeko aktibo gisa kontuan hartzeko beharrari buruzkoa ere.

Berrikuntza-estrategiei dagokienez, erabilera iragankorrak aipatu behar dira erabilera berriak probatzeko bide gisa, eta horien sorkuntzarako eta kudeaketarako lankidetza-eredua espazioa berraktibatzearen eremuan bertan berrikuntzak egiteko modu gisa.

Hiri-perimetroari dagokionez, LAGek horien eremu mugakideak mugarriztatzea proposatzen dute, hazkundera kontrolatzeko bide moduan. Atal horretan, erabilera iragankorrak hiri-orbana mugarriztatzearen modu gisa gehitu daitezke, betiere kirol-jardueretara, aisialdira eta antzekoetara mugatzen badira.

Azkenik, gabezia gisa aipatu beharra dago estrategia iragankorren aintzatespen falta hiri-erlaketako ardatzetarako edo sormen-ardatzetarako orientabideen barruan, erabilera iragankorrak lurraldea birgaitzeko eta berritzeko estrategia gisa sustatuta.

GOBERNANTZA: PARTE-HARTZEA, ANTOLAMENDUA, ADIERAZLEAK

LAGek jaso eta azpimarratu egiten dute parte-hartzea entzunaldi eta informazio publikoko mekanismoetatik harago hedatzeko beharra, eta, gainera, ezarri egiten dute herritarren partaidetzako prozesuak abiarazteko beharra plangintza-tresnak berrikuste eta onartze aldera. Hori aurrerapen esponentziala da, eta politika publikoen eta lurralde-politiken kudeaketan berritzeko motibazio handia adierazten du.

Hala eta guztiz ere, LAGen Berrikuspenaren Oinarrizko Dokumentuari dagokionez, parte-hartzearen atalak ez dauka garapen orekaturik gainerako puntuekin alderatuta, eta eskas agertzen da nolabait; izan ere, ez dira garatzen, gainerako ataletan egiten den moduan, horiek martxan jartzeko eta zabaltzeko helburuak eta lurralde-orientabideak.

Era berean, eta aurretik deskribatutako gabeziaren ondorioz, parte-hartzeak entzunaldi publikoaren eta informazioaren lege-izapideak gaiztoz behar dituela zehazten bada ere, ez da gomendatzen lehentasunezko kanal, bide edo eredurik.

Parte-hartzea LAGen artean gehitu izana aukera bat da berez, baina erabilera iragankorren bidez trantsizioan dauden eta lankidetzatik hurbilago dauden espazioen sorkuntzarako eta kudeaketarako ereduak bultzatze aldera, tresnak berrikusteko eta onartzeko prozesuetatik haragoko kanalak eta bideak errazteko. Hala, beharrezkoa da praxi hori eragiten duten oinarrizko orientabideak definitzea eta zehaztea.

EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea

2/2006 Legeak, hainbat xedapenetan, lurzoruaren aprobetxamendua sustatzeko eta hirigintzarekiko interes orokorra sendotzeko asmo handia adierazten du; izan ere, bi alderdi horiek bide interesgarriak irekitzen dituzte guri eragiten diguten tipologiai, erabilera eta ereduak gehitzeko. Lurzoruaren izaera berriztagarria eta haren erabilera arrazional eta intentsiboa aipatzen dira jada zioen azalpenean, eta gai hori, gero, legearen hainbat artikulutan islatzen da.

Erabilera iragankorrak, aldi baterako eta iraupen laburrekoak izanik, berraktibatze-aukera interesgarri gisa aurkeztu dira, eta lurzoria erabiltzeko eta baliatzeko bide ematen dute, baliabidea bera hipotekatu gabe.

Berrerabilitze eta birgaitze kontzeptuak maiz agertzen dira legean, eta lehentasunezko aukera moduan aurkezten dira hazkunde berriaren ginetik. Ez dira lurzoruaren erabilerara mugatzen, eraikitako eta urbanizatutako ondarrera zabaltzen baizik, bai eta hutsik dauden etxebizitzetara ere. Hori aukera ontzat aurkezten da erabilera iragankorra aintzat hartzeko.

Zioen azalpena. II. kap. 1. Ingurumen-politikari dagokionez:

2.1. (...) Legeak horrexegatik ezarri du, (...), lurzoria zentzuz eta intentsitatez erabiltzeko joera, (...), eta lurra ondasun urria da, eta ezin da berri.

Zioen azalpena. II. kap. 2. Hirigintzako irizpideak eta jarraibideak.

2. Hirigintzako irizpideak eta jarraibideak:

- a) (...) lurzoruak dituen baliabide naturalak (...).
- b) Lurzoruaren okupazioak ere eramangarria izan behar du. (...), hazkundeari ekin aurretik, lehentasuna izango du beti lurak birgaitzeko eta leheneratzeko lanak.
- c) Eraikitze eramangarria bultzatu behar da birgaitzearen bidez. Horretarako, lehentasuna eman behar zaio herrietako jatorrizko guneetan eraikita eta urbanizatuta dagoen ondarea berroneratzeari eta hutsik dauden etxebizitzak erabiltzeari.

Xedapen orokorrak. 3. art. Garapen eramangarriaren printzipioa:

1. Lurralde-eredua:

- a) Ekonomia eta gizartea modu jasangarri eta iraunkorrean garatzen dituzten ekoizpen- eta kontsumo-prozesuei lagundu behar zaie.

Lurzoruaren jabegoaren erregimenari eskainitako atalean, era berean, nabarmendu beharreko zenbait gai daude. Hirigintzan interes orokorra pribatuari gailentzen zaiola eta lurzoruaren funtzioa erakunde publikoetatik zehazten dela oinarritzat hartuta, legeak haren jabegoari dagozkion eskubideak eta betebeharrak zehazten ditu. Hala, eskubideei dagokionez, legeak behin-behineko obrak eta instalazioak baimentzen ditu –lurzoruak urbanizatzeko jarduketa-programarik ez daukanean–, eta zehaztaper hori erabilera iragankorretan iragankorrenak gehitzeko lehenengo urratsa izan liteke.

Lurzoruaren jabetza-erregimena 22. art. Lurzoruaren jabetzak hirigintzaren aldetik duen legeko edukia.
Lurzoru urbanizagarria eta hiri-lurzoru finkatugabea.

- (urbanizatzeko jarduketa-programarik ez daukanean)
- Behin-behineko obrak eta instalazioak (36. art.).
- (urbanizatzeko jarduketa-programa daukanean)
- Orube bihurtzeko behar diren urbanizazio-obrak.

- Beti hirigintza-antolamenduak baimendutako erabilerara edo erabilerara bideratua.

Jabego-betebeharrei dagokienez, legeak oro har ezartzen du derrigorrezkoa dela eraikinak eta lurzorua helburu duten erabilerarako eska dakizkien segurtasuneko eta osasun publikoko parametroen eta baldintzen mende mantentzea. Egitekoak ez betetzea arrazoi izan daiteke jabetzaren gaineko eskubideak mugatzeko. Kasu horietan, erabilera iragankorrak esparru interesgarria izan litezke; izan ere, erabilerarik gabeko edo abandonatutako lurzoruak eta eraikinak xede publikoetarako antola litezke, modu iragankorrean, desjabetzeko edo bestelako zehapen mota larriagorik erabiltzeko beharrik gabe.

Lurzoruaren jabetza-erregimena 24. art. Eginbehar orokorrak.

1.a. (...) lurzoruaren gainean dauden etxe, eraikin eta instalazioak zaindu egin behar dira legez eska daitezkeen baldintzak betez, hartara era zilegian ematen zaien erabilera eduki dezaten.

1.b. Lurzorua eta haren gainean dagoen landaretza zaindu egin behar da, segurtasun edo osasun publikoarentzako arriskuak eta/edo beste batzuei eragin dakizkiekeen kalteak saihesteko...

Aztertu beharreko hurrengo blokea lurzoruaren erabilerei buruzkoa da. Bertan, legeak artikulatu bat eskaintzen dio bere behin-behineko erabileren definizioari, eta horiek dira proposatutako erabilera iragankorren tipologiarekiko antz handiena omen dutenak. Legeak jarduera-katalogo nahiko zabala jasotzen du behin-behineko erabileren barruan, nekazar erabileratik aisia-, jolas- edo kultura-zerbitzu edo -jardueretara. Baina erabilera mota hori zehazteko beharrezkoak diren alde aurretiko baldintzak murriztailegiak dira (antolamendu xehatua onartu ez duten eta lurzoruaren edo ondasun higiezinaren birpartzelatze- edo desjabetze-proiektua abiarazi ez duten sektore edo unitateentzat gaitzen da erabilera). Erabilerek ezingo dute inoiz industriakoak edo bizitokikoak izan, eta merkataritza- edo bulego-erabileren kasuan, ezingo dute eraikinen bizitzaren iraupena aldatu. Gainerako erabileren kasuan bezala, behin-behinekoetan lizentzia behar da administrazioetik kanpoko eremu batetik sustatzen den guztietan, eta lehentasuna emango zaie desmunta daitezkeen instalazioei. Ematen den jarduketabagunea nahiko txikia den arren, eta bereziki bete beharreko baldintza bat lurzoruak antolamendu xehatuari lotuta egon ez daitezela izateagatik, egoera ugaritan betetzen dira eskakizun horiek, eta kasu horiek oso erraz egokitu ahalko lirateke erabilera iragankorrak gauzatzeko beharrezkoak eta ezin hobeak diren baldintzak gehitzeko.

Lurzoruaren erregimena. Behin-behineko erabilerak. 36. art.

Oraindik antolamendu xehatua onartu gabe duten alor, sektore edo egikaritze-unitateetan baimentzen direnak dira. Baimena eman dakieke soilik baldin eta legeak espresuki debekatzen ez badu edo plangintza egikaritzea zailtzen ez badute. Honelakoak izan daitezke:

- Nekazaritza, abelazkuntza edo basozaintzako erabilera (eta aurrekoekin zerikusia duen merkataritzako erabilera).
- Biltzaratzea edo gordetzea.
- Herriarrei zerbitzu partikularrak eskaintzea.
- Aisiako, kirolako, olgetako eta kulturako erabilerak.

- Bulegoko eta merkataritzako erabilerak.

Antolamendu xehaturik indarrean ez duten eremuetan, bulegoko eta merkataritzako erabilerak baimendu ahal izateko, ez dute araubidea aldatu behar eta ez dute eraikuntza horien bizitzaldia luzatu behar.

Bizitegirako erabilerak edo industria-erabilerak ezin dira inola ere behin-behinekotzat hartu.

Lurzoruaren ondare publikoari dagokionez, legeak jasotzen du derrigorrezkoa dela gutxienez udal-aurrekontuaren % 10 bideratzea eraikuntzara, zuzkiduren birgaitzera, baliabide publikoetara eta/edo lurzoru-erosketara, besteen artean. Aurrekontu-partida hori, era berean, bitartekotza-jardueretara edo trantsizioan dauden espazioak berrakibatuzera zuzendu liteke, esaterako erabilerarik gabeko lurzoru eta eraikin pribatuen jabegoari dagokion bitartekotza baten bidez (alokairu murriztuak, aldi baterako lagapenak, hobekuntzak, etab.), erabilera iragankor publikoetara edo interes orokorrekoetara bideratze aldera.

Lurzoru-ondare publikoa. 114. art. Udal lurzoru-ondarerako aurrekontu-izendapena.

Udal-lurzorurako gutxiengo % 10eko aurrekontu-izendapena, zuzkidura eta baliabide publikoentzat: etxebizitza publikoentzako lurzoruak, ekipamendu publikoak eraikitzea/birgaitzea/hobetzea, sustapen edo interes publikoko jarduera ekonomikoen bidez lurzoruak erostea edo publikoki sustatzea.

Lurzoruaren jabegoaren kasuan bezala, legeak betebeharrak jakin batzuk ezartzen ditu eraikuntzari dagokionez. Hala, eraikitze betebeharra hirigintza-plangintzak edo -programak ezarritako epe maximoen barruan gauzatu behar da, edo, aurrerako kasuan, desjabetzeko, saltzera behartzeko eta eraikitze behartzeko mekanismoak gaituko dira. Hori aukera bat izan daiteke erabilera iragankorrak gehitzeko, espazioa baliatzeko bide gisa haren azken helburua bete arte, edo zehapen-bide iragankor arinago baten moduan. Gainera, eraikitzeko eskubideari buruzko betebeharrak horiek lurzoruaren jabegoaren inguruko betebeharretara zabalduko balira, erabiltzen ez diren lurzoruak eta hegalak askoz modu dinamikoagoan berrakibatuz eta baliatu litezke.

Partzelak eta orubeak eraikitzea. Art.189. Eraikitze eginbeharra eta gehieneko epeak.

Urbanizatzeko jarduketak-plangintzak edo -programak ezarritako epe maximoak.

Partzelak eta orubeak eraikitzea. 190. art. Eraikitze eginbeharra ez betetzea.

Administrazioak gaitasuna izango du desjabetzeko, salmenta bat behartzeko edo eraikitzaile bati eraikuntza-programa bat esleitzeko (eraikuntza behartua).

Lurzoruak erabiltzeko eta gozatzeko lagapen asko hirigintza-hitzarmenen bidez gaitzen dira. Kasu horretan, legeak pertsona publiko edo pribatuekiko hirigintza-garapenerako hitzarmenak izenpetzeko aukera jasotzen du, lurzoruaren jabe izan ala ez. Azken horiek aukera interesgarria dakar lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako lankidetzak-ereduak errazte aldera; izan ere, hirugarren pertsonen kudeaketa-hitzarmenak ahalbidetzen ditu, jabeetatik harago.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

ttipiSTUDIO



B-Studio
IRATI BURGUES

Zazpigarren xedapen gehigarria. Hirigintza-hitzarmenak.

1. Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta toki-entitatek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrenean garatzeko. Pertsonok ez dute zertan izan kasuan kasuko lursailen jabe.



5. AURRERAPENEAN LAGak GEHITZEKO PROPOSAMENA

trantsizioan dauden espazioak aintzat hartzeko lurralde-estrategia

«Hiriek, edo bizitoki ditugun dena delako lekuek, historikoki amaitu gabe egotea izan dute ezaugarri, beti baitaude aldaketa edo mutazioa ahalbidetzen duten zirrikituak. Hiria osatugabea izatea ezinbestekoa da bere eboluzioa ahalbidetzeko eta, batez ere, premia berriei erantzuteko. Hiriek inoiz ez lukete bukatuta egon beharko, une horretan hilda egongo bailirateke. (...) Aurrekoa osatzen duen beste ideia da hiria goitik beherako jarduketa handiengatik ez ezik behetik gorako aldaketa txiki askorengatik ere aldatzen dela. Hori posible da hiria hardware izenekoaz ez ezik (zuhaitzak, eraikinak, kaleak) softwareaz ere (pertsonak) osatuta dagoelako. Softwarerik gabe ez dago hiririk, objektuak besterik ez. Eta softwareak ematen dio zentzua hardwareari, ez alderantziz »

José Fariñas – Urbanismo, Territorio y Paisaje

Lurraldea, eta bereziki hiria edo hiritarra den oro, etengabeko eboluzioan dago beti. Horren frogak uneoro ikus ditzakegu gure inguruan. Hirietako geruza historikoak arkitektura-kontrasteen mosaiko aberatsean bizi dira elkarrekin. Batzuetan, egitura historiko horiek hiri modernoaren bizitzan eta funtzioan arrakastaz txertatuta daude; beren eskema kalearen egungo patroietan idazten da maiz; eta, zenbaitetan, arrasto horiek egungo hiri-sarean modu inkongruentean hondoratuta daudela dirudi¹².

Etengabeko eboluzio horretan, aldi baterako dena etengabea da ere bai. Izan ere, aldi baterako hiri-estrategiak edo hiri-estrategia iragankorrak beti egon dira bertan eta ezinbestekoak izan dira hiriko bizitzarentzat, ziurgabetasun- edo krisialdi-garaietan bide eraginkorra izatetik harago. Beti izan dira hobiak hiriko paisaian, eta unean uneko, bat-bateko eta aldi baterako jarduerak (biltegiratzea, jarduera ekonomikoak, etab.) jasotzeko erabili izan dira. Jarduera mota horiek lurraldearen sorkuntza planifikatuaren elementu paralelotzat jo izan dira, baina, egiatan, hiri-ekonomiaren ezinbesteko zati dira eta balio handiko ezaugarriak dituzte. Izan ere, «bien bitartean» estrategia gisa erabilgarriak izatetik harago, erabilera iragankorrek beste jarduketa-esparru batean eta epe luzerako pentsatutako esku-hartzeetan pentsaezinak liratekeen ereduak, jarduerak eta estrategiak garatzea eta probatzea ahalbidetu dute.

Aurreko etapetan ez bezala, gaur egun, hirigunea eta lurraldea suspertu eta birmoldatu dadila bultzatzeko eta sustatzeko ardura duten administrazioek baliabide, botere eta kontrol eskasia dute lurralde-plangintza modu linealean eta aurreikusitakoaren arabera inplementatzeko. Badirudi ziurgabetasunez eta aukera ekonomiko aldakorrez beteriko testuinguru batean are funtzio garrantzitsuagoa egon daitekeela estrategia iragankorrenzat edo iragankortasuna aintzat hartzen duten plangintza-ereduentzat.

Gaur egun nahikoa esperientzia pilatu da nazioarteko mailan plangintza-ikuspegiaren eta diseinu-esparru malguagoen inguruan, erabiltzen ez diren espazioen potentziala askatzeari lotuta, denborazkoagoak diren pakete eta ekimen txikiak sustatzearen bidez. Esperientzia horrek balio handiko ezagutza sortu du beste lurralde

¹². Bishop, P., Williams, L. The Temporary City. Routledge. 2012.



batzuetara eramate aldera. Bestalde, pop-up¹³ fenomenoaren hazkundera gertatzen ari dela ikus dezakegu ere, eta iragankortasunaren hazkundera Europako hiri guztietan. Aldi berean, badirudi hiriaren erabileraren aldi baterako «aldarrikapenak» ere goraka doazela, hala nola arte-instalazioak, hiri-nekazaritza, kirolak eta jolas-jarduerak, etab. Espazioaren eta komuna denaren erabileraren eta kudeaketaren inguruko ikusmolde alternatiboa duten pertsona edo komunitate asko ari da hiriko «bottom-up¹⁴» erako ekintza eta erabilera horietako asko bultzatzen.

Azken urteotan sortu diren mota horretako bideen, alternatiben eta soluzioen epeltasunean, ukaezina dirudi ezohiko jarduketa-esparruetatik eta hiri-hutsuneetatik garatutako proiektu horiek ez dutenik iruzkin kritiko edo pasadizo huts bat osatzen. Jardunbide horiek erakusten dute hiria leheneratu daitekeela, eta lurraldearen gainean jardun, inbertsio, konpromiso edo lurzorua gaineko ondorio handien beharrik gabe. Eredu horiek proiektugile eta planifikatzaileentzako aukera bihur daitezke eta bihurtu behar dira beste modu batera esku hartu ahal izateko: funtzionatzen ez duenari konponbidea emateko nahia, edo hiria eguneroko bizitzatik eta biztanleen benetako premietatik abiatuta berriz pentsatzeko borondatea.

Frogatuta dago ekintza mota horiek testuinguru erradikalean funtzionatzen dutela, prozedura tradizionalak eraginik gabekoak eta zaharkituak izaten diren horietan, eta, ikuspuntu teknikitik, hirigintzaren jardunbide tradizionalen osagarri diren jarduketak abiarazi daitezke. Baina, aldi baterako espazio-eskuratze horiek kondenatuta al daude hutsuneak betetzera interes ekonomikoak sortu arte edo plana egikaritu arte? Edo, aitzitik, testuinguru berri batean aldi baterako soluzioak integratzen dituzten hiri-garapenerako garapen-eredu alternatiboak dira?

Bistakoa dirudenez, fenomeno horren ondorioz administrazioek aurrean izango duten agertokian plangintzan aurki daitezkeen esku-hartzeko tresnak eta prozedurak malgutasun handiagoa eta ikuspegi estrategikoa eransten joan beharko dira horri dagokionez.

Izan ere, lurraldearen sorkuntzarako eta kudeaketarako erabilera iragankorrak segurtasun eta zehaztasun handiagoz sustatze aldera, ekintza gehiago behar dira. Azken batean, lurralde-estrategian gidalerroak gehitu beharko lirateke, bai eta trantsizioan dauden espazioak eta horiek berraktibatzea eta horien balioztatzea aintzat har dadila ahalbidetuko duten baliabideak abiarazi ere, herritarrekiko eta interesa duten eragileekiko lankidetzan oinarritutako espazio-kudeaketako eta -ekoizpeneko eredu bat bermatuta.

TRANTSIZIOAN DAUDEN ESPAZIOEN ERABILERA IRAGANKORRAK EKOIZTU ETA KUDEATZEKO EREDU KOLABORATZAILEAK

¹³. Aldi baterako eta denbora-tarte labur batez funtzionatzen duen denda, jatetxe, ... bat deskribatzeko erabiltzen da.

¹⁴. Partaidetzan eta gizarte-oinarrietatik egiten diren prozesuei erreferentzia egiten dioten «behetik gora» artikulatutako prozesuak.

aurrerapenean gehitzeko idazki-proposamena

Jarraian jaso da EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren Oinarrizko Dokumentuari eransteko idazki-proposamena. Alde batetik, aurrerapenean jasotakoari zenbait ñabardura gehitzea proposatzen da, eta, bestetik, eduki berria eranstea Alderdiaren Egoera, Helburuak eta Lurralde Orientabideak ataletan, dokumentuko hainbat puntutan, baina bereziki Hirigunearen inguruko 8. kapituluan, hain zuzen Hiri Leheneratzeari eta Birgaitzeari dagokien azpiatalean.

2. KAPITULUA / LURRALDE-EREDUAREN OINARRIAK

2.1. LURRALDE ADIMENTSUA

33. or., 4. paragrafoa.

«Gure lurraldeak elkarte- eta ekintzailatza-tradizio indartsua dauka. Aski ezagunak dira historikoki gizarte-oinarrietatik sustatu izan diren gizarte-, kultura- eta enpresa-ekimen ugariak, funtzio garrantzitsua izan baitute gure lurralda hobetzeko eta garatzeko orduan (mugimendu kooperatiboa, ikastolen fenomenoak, ETEen industria-sarea, etab.). Fenomeno hori berezko ezaugarria da, eta autoantolakuntzaren, espiritu berritzailearen eta talde-adimenaren inguruko kultura eta tradizioa erakusten du. Hori guztia oinarri gisa hartu behar da proiektu berritzaileak eta hobekuntza lehiakorrek proiektuak bilatzeko eta abiarazteko».

2.3. LURRALDE SOZIAL ETA INTEGRATZAILEA

38. or., 3. paragrafoa.

«Era berean, herritarren/eragileen eta herri-administrazioaren artean lankidetzak eta partaidetza-ereduak bultzatzean datza, hala nola hiria eraberritzea, eraikitako espazioak berreskuratzea edo ondasun komunak zaintzea eta kudeatzea dagokionez, integrazioa eta kohesioa zentzurik zabalenean bultzatzeko bide gisa».

2.5. LURRALDE PARTE-HARTZAILEA

40. or., 2. paragrafoa.

«Horretarako, aurrera egin beharko litzateke lankidetzatik hurbilago dauden lurralde-ekoizpenerako eta -kudeaketarako ereduak bilaketan, batez ere ondasun komunei eta publikoei dagokienez, gai baitira informazioko eta entzunaldi publikoko bideak edo plangintza edo bestelako tresnak onartzeko prozeduretara bideratutako parte-hartzea gainditzeko».

6. KAPITULUA / INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

6.2. AZPIEGITURA BERDEA

HELBURUAK. 116. or.

2. Azpiegitura berdea diseinatzeko eta kudeatzeko parte-hartze soziala sustatzea, haren aprobetxamendua eta erabilera bultzatze aldera.

LURRALDE-ORIENTABIDEAK. 119. or.

5. Azpiegitura berdean erabilera eta jarduera iragankorrak eta kolektiboak diseinatzeko eta kudeatzeko parte-hartze soziala sustatzea (berdeguneetarako eta aisialdirako, kirolerako eta abarrerako eremuetarako azpiegiturak), lurzoru horietarako ezarritako erabilera-murritzapenen barruan hura erabili eta gozatu ahal izateko.

8. KAPITULUA / HIRIGUNEA

8.1. HIRI-BIRGAITZEA ETA -BERRONERATZEA

AUZIAREN EGOERA. 147. or.

d) Hiri-errealitate berriak aintzat hartzea: trantsizioan dauden espazioak eta erabilera iragankorrak

Lurraldea, eta bereziki hirigunea, etengabeko eboluzioan eta eraikuntzan dago beti; inoiz ez dago amaituta. Etengabeko eboluzio horretan, aldi baterako edo iragankorra den hori ere etengabea izan da: hiri-paisaian beti izan dira unean uneko, bat-bateko eta aldi baterako jarduerak jasotzeko erabili izan diren hutsuneak.

Gaur egun ere hiri-espazio huts edo zaharkitu anitz dago, eta hirietan eta lurraldean gertatzen diren dinamika ugariaren emaitza gisa uler daitezke, azken hamarkadetan gertatutako hainbat aldaketa ekonomiko eta sozialen ondorioz: Industria-ekoizpenerako eta/edo azpiegituretan erabiltzen diren eraikin eta lurzoruetan hutsuneak eta zaharkitzeak eragiten dituzten eraldaketa ekonomikoen, edo, herritarren eta/edo bestelako eragileen kasuan, hiriaren erdigunean hutsuneak eragiten dituzten lehentasunen aldaketena. Hutsuneei batera aurki ditzakegu, halaber, denbora-etengabeko harrapatutako hamaika hiri-bilbe, bukatu gabeko etxebizitza hutsak, gauzatu gabeko espazio urbanizatuak, garatzeko zain egonda gutxiegi erabiltzen diren eremu handiak etab.

Aldaketa horien modu paraleloan, lurzoruarekiko eskari eta premia berriak agertu dira; gainera, izaera sortzaile eta sozialeko gizabanakoek, taldeek eta/edo enpresa-jarduerak bat-bateko, herri-izaerako eta/edo aldi baterako esku-hartze hiritarraren ereduak praktikara eramaten dituzte –ohiko hirigintza-plangintzaren, -egikaritzearen eta -kudeaketaren osagarri den eredu gisa–, eta aipatutako eskari eta premiak ekimen horietan islatzen dira.

«Bitartean» hori ekoizteko eta kudeatzeko formula horiek espazioak gutxiengo esku-hartzeen bidez aktibatzei aukera gisa aurkezten dira, baina krisialdi-garaian lurraldea berroneratzeko estrategia baten moduan erabilgarri izatetik harago, jarduketara mota horiek hiri-bizitzaren eta -ekonomiaren ezinbesteko atala dira, eta balio handiko berezko ezaugarriak dituzte: erabilera iragankorrek aukera ematen dute epe luzerako pentsatutako jarduketara-esparruetan posible ez liratekeen ereduak, jarduerak eta estrategiak garatzeko eta probatzeko.

Testuinguru horretan premiazkoa da egoera, erabilera eta praxi mota horiek lurraldearen definizioaren eta plangintzaren barruan nahiz haren kudeaketan txertatzeko edo gain hartzeko aukera begiztatzea. Modu horretan, lurralde-aprobetxamendua sustatzea eta lurralde adimentsua sortzea bilatzen da, bere birsorkuntza-beharrei bertan bizi diren eragileen ekimenaren bitartez erantzuteko gai izango den lurralde bat. Hiri-errealitate

berri horiek erreferentzia egiten diote hurrengo definizioetan jasotako lurzoru eta erabilera motari eta kudeaketa-ereduari:

1. Trantsizioan dauden espazioak: hutsik edo erabili gabe dauden espazioak, probetxurik atera gabe eta abandonatuta, bi jarduera- eta/edo erabilera-uneren arteko trantsizioan egoteagatik, bai iraganean zuten erabilera zaharkituta geratu delako eta bai etorkizuneko erabilera ez delako erabat garatu. Trantsizioan dauden espazio horiek, iraganeke eta etorkizuneko erabileraren arteko erdibide-egoeran, aukera ona dira lurralde-kontsumoan erabilera eraginkorra egin ahal izateko.
2. Erabilera iragankorrak: erabilerarik gabeko edo epe txikian konponbide bideragarriak ez duten espazioak konpontzeko edo aktibatzeko modu gisa aurkezten diren behin-behineko eta aldi baterako erabilerak dira. Askotariko funtzioak izan ditzakete, baina aldi baterako eta bat-batekoak dira; hala, aukera ematen dute lurraldeko eskari eta premiei modu arinean erantzuteko. Erabilera-aukera berriak esploratzeko, espazio narriatuak berroneratzeko eta lurzoru zaharkituak aktibatzeko aukera moduan aurkezten dira.
3. Lurraldearen lankidetzazko ekoizpena: herritarrak eta/edo eragileak buru dituzten eta espazioa diseinatze, eraikitze eta kudeatze aldera elkarsorkuntza eta elkarkudeaketako logiketatik ohikoen paraleloak diren formulak proposatzen dituzten esku-hartzeak edo espazioaren eraldaketa-prozesuak artikulatzeko orduan baliatzen diren ereduak dira. Eredu hori, trantsizioan dauden erabileretara eta espazioetara eramanez gero, trantsizioan dauden espazioak aldi baterako edo modu iragankorrean berraktibatzeke diseinu- eta kudeaketa-formula parte-hartzaileetan datza.

Ildo horretan, eta hiri-errealitate horiei heltzeko ekin beharko diren ekintzetatik harago, nabarmendu beharra dago egungo legeriak jarduketa-esparru egokia aurkezten duela, behin-behineko erabilerako tipologiari eta haren gainean baimenduta dauden jarduera-motei erreparatuta.

HELBURUAK. 147. or.

6. Erabilera iragankorrak hirigunea berroneratzeko estrategia gisa sustatzea, herritarren eta administrazioaren arteko lankidetzazko-ereduen bidez trantsizioan dauden espazioen berrabilpenari eta talde-erabilpenari garrantzia emanda.

LURRALDE-ORIENTABIDEAK. 148. or.

a) Orientabide orokorrak

(dagoeneko agertzen denari gehitu)

3. Hiri berroneratzeari eta lehendik urbanizatutako edo hiri-bilbean integratutako espazioa erabiltzeari lehentasuna ematea lurzoru berrien urbanizazioaren aurrean, etxebizitzako, jarduera ekonomikoko eta bestelako talde-erabilerako premiak betetzeko.
4. Dentsitate handiagoko hiri-espazioak sortzea, hirigintza-intentsitate handiagoa dutela, eta erabileren aniztasuna eta nahasketa bereizgarri dituztela, honako hauen bitartez: gutxiegi erabilitako hiri-espazioak aprobetxatuta eta dauden hiri-hutsuneak beteta; eraikin-intentsitate txikiko eremuetan dentsitatea areagotuta; eta

espazioak berrerabilita hiria berroneratzeko eta berreraikitzeke ekintzen bitartez, bai eta jarduera eta erabilera iragankorrak sustatzeko ere.

HIRI-ERREALITATE BERRIEN ARLOKO ORIENTABIDEAK. 150. or.

Hirigintza-araudia hurrengo alderdiei dagokienez egokitzeko aukera aintzat hartzea:

- Hiri-sarearen barruan trantsizioan dauden espazioak identifikatzea, beren jatorri, tipologia, eskala eta bestelako ezaugarrien aniztasunari erreparatuta.
- Trantsizioan dauden espazioak ikusgai egiten dituen eta erabilera iragankorrei segurtasuna ematen dien figura bat sortzeko aukera aztertzea, hura hiri-plangintzan sartze aldera.
- Herritarren eta administrazioaren arteko «lankidetzeta-itunak» gisako formulak ikastea, interes orokorreko jarduerak gauzatzeko herri-ekimen autonomoak sustatze aldera.
- Trantsizioan dauden espazioen (zaharkituak eta erabilerarik gabe) erabilera- eta eraldaketa-baldintzak malgutzera, horiek erabilera iragankorren bidez erabiltzeko eta aktibatzeke.

Hirigintza-plangintza ondoko alderdietan sustatzea:

- Trantsizioan dauden espazioak logika parte-hartzaitetik berraktibatu eta erabili daitezela eta espazio hori erabiltzeak kaltetu ditzakeen eragileen parte-hartzearen bitartez egin dadila sustatzea, herritarren premien arabera eta biztanleriarekin batera garatu beharreko aukerako espazioak planteatuta.
- Estrategia iragankorren sustapenean instituzioen bitartekotza bermatzea (bitarteko erabilerak edo erabilera iragankorrak, informazioa, aholkularitza, erabilera-lagapenerako jabetzarako bitartekotza, etab. jasotzera bideratutako eta erabili gabeko edo abandonatutako lurzoruen eta espazioen katastro-erregistroa).
- Hirigintza-plangintzaren barruan erabilera iragankorrak jasotzeko lurzoru-erreserbak sortzeko aukera aintzat hartzea, bai eraikitako (eta zaharkitutako, edo trantsizioan dauden) hiri-espazioak berrerabiltzeko eta bai etorkizuneko garapenerako (etorkizuneko garapenetan espazio zaharkituak biderkatzea saihesteko).

8.2. LURRALDEAREN JASANGARRITASUNA JARDUERA EKONOMIKOEN LURZORUAN

HELBURUAK. 153. or.

6. Erabilera iragankorren bidez, lehentasuna ematea gutxiegi erabilitako lurzorua eta ondasun higiezinak – industriara edo jarduera ekonomikoetara bideratutakoak – aprobetxatzeko jardueri, garapen berrien aurrean, askotariko erabilera eta jardueri tokia emanez.

LURRALDE-ORIENTABIDEAK. 154. or.

(dagoeneko agertzen denari gehitu)

a) Industrialde tradizionalen inguruan. Berriztatze-, birgaitze-, eraberritze- eta baloratze-estrategiak.

1. Gutxiegi erabilitako jarduera ekonomikoetarako lurzoruen aprobetxamenduari lehentasuna ematea landa-lurralde berrien kolonizazioaren aurrean. Horren harira:

- (4. gidoia) Erabili gabeko espazio zaharkituen erabilera- eta eraldaketa-baldintzak malgutzera, kultura-, hezkuntza- nahiz kirol-arloko talde-jardueri tokia ematen dioten erabilera iragankorren bidez erabiltzeko eta aktibatzeko.

- (5. gidoia) Herritarren eta administrazioaren arteko «lankidetzaitunak» gisako formulak ikastea, erabili gabeko espazio zaharkituetan interes orokorreko jarduerak gauzatzeko herri-ekimen autonomoak sustatze aldera.

8.3. HIRI-HAZKUNDEKO PERIMETROA

AUZIAREN EGOERA. 157. or., 4. paragrafoa.

Hiria trinkotzeko eta eraberritzeko estrategiei eta hiri-perimetroari dagokienez, kontuan hartu beharra dago ere trantsizioan dauden espazioek, hiriaren eta landaren arteko espazio gisa, jarduera zehatzik gabeak izanik, historikoki bat-batekotasun handiagoz gaitutako erabilerak jaso dituztela (hiri-baratzeak, autoeraikuntza iragankorrak, etab.), eta zaila zen horiek hirigune finkatuan tokia eduki zezatela, haren gaineko erabilera-eskariaren presioarengatik. Horrez gain, euste-hormaren funtzioa betetzen dute lurraldearen okupazio-dentsitate desberdinen artean.

LURRALDE-ORIENTABIDEAK. 159. or.

b) Udal-plangintzarako orientabideak.

3. Hiri-perimetroaren barruan trantsizioan dauden espazioak kalitatez hornitzea, erabilera iragankor eta kolektiboen bidez (berdeguneak, aisialdi- eta kirol-eremuak, etab.), horiek erabiltzeko eta gozatzeko aukerarekin baina lurzorua kontsolidatzera iritsi gabe (hiri-orbana etengabe hazteko arriskua saihesteko).

4. Herritarren eta administrazioaren arteko «lankidetzaitunak» gisako formulak ikastea, erabili gabeko espazio zaharkituetan interes orokorreko jarduerak gauzatzeko herri-ekimen autonomoak sustatze aldera.

12. KAPITULUA / GOBERNANTZA

12.1. PARTE-HARTZEA.

272. or., 4. paragrafoa.

Lankidetzaitun handiagoko lurralde-sorkuntzarako eta -kudeaketarako eredu baten bilaketan, eta bereziki trantsizioan dauden espazioak tratatzeari eta berraktibatzeari dagokionez, beharrezkoa da herritarrekin eta eragileekin elkarsorkuntza eta elkarkudeaketako mekanismo eta bide berritzaileagoak artikulatzea, informazio eta entzunaldi publikotik eta prozesu parte-hartzaileetatik harago joateko plangintza berrikusteko eta onartzeko prozeduretan, gaur egungo gidalerroen berrikuspenean jada ezarritakoaren moduan.

Trantsizioan dauden espazioak diseinatzeko, eraikitzeko eta kudeatzeko formula parte-hartzaileak sustatzeaz gain, beharrezkoa da administrazio-neurriak abiaraztea, jarduketa iragankor horiei esparru eraginkorra eta segurua lankidetzaren bitartez emate aldera. Beste lurralde batzuetan jada aurrera eramaten ari den aukera bat «lankidetzaitunak» ezartzea da, herritarren eta administrazioaren arteko lankidetzaitun horren edukia eta baldintzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

ttipiSTUDIO



B-Studio
IRATI BURGUES

zehazten dituen hitzarmen edo lege-formula gisa. Itun horien helburua herritarren/eragileen ekimenak sustatzea da, lurralde- eta hiri-ondasun komunak laguntzearen, zaintzearen eta kudeatzearen inguruan (zenbait ekintzatan gauzatu liteke: erabilerarik gabeko espazioen edo eraikinen lagapena, espazioak ematean tasak eta zergak murriztean oinarritutako laguntza-era posibleak, bai eta hiriko ondasun publikoak diseinatzeko lankidetzak moduak ere). Itun horiek baliozko iturri bat izan daitezke trantsizioan dauden espazioen erabilera eta aktibazio iragankorrerako lankidetzak-esparruak artikulatzeko orduan.

Bilbon, 2016ko uztailaren 21ean



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

ttipiSTUDIO

Ane Abarrategi Zaitegi – Ttipi Studio

Irati Burgués Asteasu – B-studio arkitektura



B-Studio
IRATI BURGUES



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

ttipiSTUDIO



B-Studio
IRATI BURGUES